

ISILPEKO BABESA

Zaintza lanetan aritzen da hainbat
herritar. Askotan, ikusezina da haiek
egiten duten lana 20



*ZENTZUZKOA da zure
ENTZUMENA zaintzea*

Zatoz GAESera eta hau emango dizugu:
ENTZUMENAREN AZTERKETA OSOA
+ BALORAZIO-TXOSTENA **GUZTIZ DOAN**

DEITU ORAIN ETA ESKATU HITZORDUA

GAES Azpeitia
Paseo de los Fueros, 8
Tel. 943 150 395

TEATRO REAL
300 AÑOS

GAES
Gaitasun Garbierak

MILAR
LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak
Julio Urkixo etorb. 16 | AZKOITIA
Tel. 943 85 18 97

MILAR
Cooking&Chef

Sukalde Gunea
Xabier Munibe 11 (Liburutegi ondoan) | AZKOITIA
www.sukaldeak.eus



*Zatoz gure erakusketa
berria ikustera!*



Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00

Jarri hemen
zure publizitatea

uztarria

Argitaratzailea. Uztarria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefona eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.eus

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 204.a (2018ko apirila)

Urtea. XIX.a (1999ko azaroan sortua)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685780412 /

uztarria@uztarria.eus

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilerio

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. J. Frantzesena

Webgunea.

www.uztarria.eus

Uztarria herri aldizkariaren laguntzaileak



DOMUSA
TEKNIKA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkariaren esandako iritzien erantzukizunik

2018KO APIRILEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Apaintzen al duzu lorez etxeko balkoia? **13**

mamia

Elkarrizketa. Juan Kruz Izagirre Azpeitiko bizilaguna Irusoin ekoiztetxeko zuzendari teknikoa da **04**

Klik! Haritz Amezuak gitarrak egiten ditu. Prozesua argazkitan **16**
Emakume pilotariak. Kantxan tokia irabazten ari dira **26**


jakiteko

Bestaldetik. Hiromi Yoshida hizkuntzalari japoniarra gertutik ezagutzen **34**

Ba al dakizu aurtengo santio Eguna asteazkenez izango dela eta ez dela jai eguna izango? **Uztarria**


Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide gara Uztarria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxebarria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

JUAN KRUIZ IZAGIRRE

zuzendari tekniko

“Lan polita dirudi, baina estresagarria da”

‘Handia’ filmaren aparretik jaitsita, beste bi lan ditu esku artean Irusoin ekoiztetxeko kideak. Euskarazko filmen ekoizpenak gora egin duela dio. 📝📺 Olaia Iraola

Ingeniaritza ikasketak egin arren, zinemaren munduan lan egitea hautatu zuen Juan Kruz Izagirrek. Besteak beste *Handia* filma egin duen Irusoin ekoiztetxeko zuzendari tekniko da egun. **Bi hilabete dira ‘Handia’-k hamar Goya sari jaso zituela...**

Donostiako Nazioarteko Zinemaldian hasi zen guztia guretzat; Epaimahaiaren Sari Berezia jaso genuen. Sari nagusia ez genuen irabazi, baina esan zigutenez, horren mailakoa edo hobea da jaso genuena. Hanka onarekin hasi genuen *Handiaren* ibilbidea, eta, ohartzerako, Goya sariak iritsi ziren eta 13 hautagaitza lortu genituen sariotarako; burutik ez zitzaigun pasatu ere egin horren-

beste izango zirenik. Eta horietatik hamar Goya sari jaso genituen: jatorrizko gidoi onenarena, gizonezko aktore berriarena, argazki zuzendaritzarena, produkzio zuzendaritzarena, musikarena, edizioarena, jantzi diseinuarena, efektu bereziarena eta makillaje eta ile-apaintarenarena. Guretzat izugarria da sari horiek denak jasotzea. Aitortu beharra dut, ordea, Joseba Usabiagak hautagaitzarik ez jasotzeak pena eman zigula.

Goya sarietarako kinielak egingo zenituzten... Zenbat sari espero zenituzten?

Bizpahiru, eta oso baikorrak izan da, asko jota, bost edo sei. Sariak ematen hasi zirenean, hazi egin ginen. Sariak jaso eta jaso hasi

|||DATUAK||||||||||||||

|||Jaio. 1958ko azaroaren 24a.

|||Herria. Azkoitia. |||Bizitokia. Azpeitia. |||Lanbidea. Irusoin ekoiztetxeko zuzendari tekniko.

ginen, eta hamargarren sari jaso ostean iritsi zen pelikularik onenaren saria emateko unea. Zera pentsatu genuen: “Hamar sari jaso baditugu, zergatik ez hamakagarrena?”. Baina ez zen posible izan. Hala eta guztiz ere, oso-oso gustura gaude lortutakoarekin.

Ez zara aurtan lehen aldiz izan Goya sarietan.

2015. urtean *Loreak* filmarekin joan ginen sari banaketara. Egia esan, ekitaldia luze joan zitzaigun urte hartan; izan ere, bi hautagaitza genituen, eta sari horiek hasiera-hasieran eman zituzten. Gainera, ez ziren guretzat izan. Aurtengoa ezberdina izan da: entretenitua, ez sinestekoa, zoragarria, bakarra. Jaialdia amaitzean, festa eder batekin ospatu genuen lortutakoa. Inoiz ahaztuko ez dudana eguna izan zen otsailaren 3a.

Inoiz baino aitortza gehiago jaso duzue ‘Handia’-ri esker. Zerk egiten du berezi filma?

Esfortzu handia eta denbora asko eskaini diogun pelikula da *Handia*. Guztira, 700 lagunek parte hartu dute filmean, eta lan bakoitza ilusio handiz egin dugu; XVII-XVIII. mendeetako arropa presatzea, adibidez. Filmeko protagonistari, Migel Joakin Eleizegiri, Eneko Sagardoyri, protesia jarri eta makillajearekin apur bat puztu zioten aurpegia, benetako pertsona handi baten itxura izan zezan.



Hala ere, zenbaitetan, Bartzelonan bizi den argeliar mutil bat aritzen Eleizegiren papera egiten Sagardoyren orde. Plano ugaritan agertzen da, ikusleak uste duena baino gehiagotan.

Ikusten ez den lan hori baloratzen al da?

Handiaren kasuan baloratu da, Goya sariak jasotzeaz gain, beste hainbat jaialditan ere saritu gaituztelako. Besteak beste, Latinoamerikan errebelazio onenaren saria jaso du Eneko Sagardoyk. Horrez gain, martxoan, Valladoliden [Espainia], beste sari bat jaso zuten *Handiaren* zuzendariek: XXI. mendeko zuzendaririk onenarena. Sariak jasotzeaz gain, jendearen babesa ere sentitu dugu. Guztira, 130.000 pertsona baino

gehiagok ikusi du filma Euskal Herrian eta Espainian. Frantzia, filma eman zuten lehen astean, guztira, 5.000 lagunek ikusi zuten lana. Guretzat oso datu garrantzitsuak dira horiek.

‘Handia’-z gain, ‘Loreak’, ‘Aupa Etxebeste!’, ‘Lucio’, ‘80 egunean’ eta ‘Urte berri on, amona!’ filmak ere ekoitzi dituzue Irusoinen. Zein duzu orain arteko lanik kuttuna?

2001ean *Karramarro Uharte*a animazio filma egin genuen, eta pila bat gustatu zitzaidan, oso ondo egina baitzegoen bai irudi aldetik, bai musika aldetik. Gainera, Goya sari bat jaso genuen lan harekin. Bestelako pelikuletatik, berriz, bat hautatu behar banu,

Urte berri on amona! hautatuko nuke. Filmak duen umore makabro hori asko gustatzen zait. *Aupa Etxebeste!* ere mundiala da barre egiteko, baina *Urte berri on amona!*-k zerbait berezia du.

Irusoinek zuzendari teknikoa zara. Zein da zure egitekoa?

Irusoinek zuzendari teknikoa naiz; hau da, alor teknikoa kudeatzen dut. Lanak eguneratuta izan behar dira, eta horretaz arduratzten naiz ni. Hain zuzen ere, film baten aurretik dagoen lana egiten dut: zer kamerekin grabatuko den adosten dut argazki zuzendariarekin, zer formatutan, zer lenterekin... Oro har, filmarekin izango ditugun zailtasunak aurreikusten ditut. Nire lanaren helburua da grabazioaren aurreko lanak ondo egitea, grabaketetan ahalik eta denbora gutxien galtzeko. Grabaketetan ez dut parte hartzen, baina behin horiek amaitzen dituztenean, muntaketa prozesuan sartzen naiz: fitxategi originalak banan-banan aztertzen ditugu, artxiboak musikariei bidaltzen dizkiegu, efektuak adosten ditugu, dauden akatsak zuzentzen ditugu...

Nolatan hasi zinen lanean Irusoinen?

Ingeniaritza ikasketak egin nituen, beste azpeitiar batekin batera. Egun batean, estudio bat muntatzen laguntzeko eskatu ziguten,

eta lan hura amaitzean, Eresoinka bikoizketa etxean hasi ginen lanean. Handik urte batzuetara, 1987an, Irusoin ekoiztetxea sortu zuten, produkzio lanak egiteko helburuarekin: dokumentalak, marrazki bizidunak, musika programak... Bien bitartean, Eresoinkak bikoizketa lanekin jarraitu zuen. Baina urte batzuetara itxi egin zuten, eta Irusoinek jarraitu zuen bikoizketa lanak egiten.

Filmak ekoizteaz gain, beste lan batzuk ere egiten dituzue, beraz.

Nahiz eta garrantzia handiena egiten ditugun filmek izan, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditugu; esaterako, beste ekoiztetxe batzuen pelikulen posprodukzio lanak egiten ditugu. Bikoizketa zerbitzua ere eskaintzen dugu, baina garai batean lan gehiago egiten genuen alor horretan. Duela urte batzuetako egoerarekin alderatuta, bost lanetik bat bikoizten dugu gaur egun.

Zer bilakaera izan du Irusoinek urte guztietan?

Marrakzi bizidunak egiten hasi ginen. Besteak beste, umeei zuzendutako saio didaktiko bat egin genuen ETBrentzat: *Borobil*. Toti Martinez de Lezearekin egiten genuen saioa bere etxean, Larrabetzun [Bizkaia]. Grabatzeko behar genuen materiala hartu eta uda haren etxean pasatu genuen. Eskuetan panpinak sartu eta istorio-



ak grabatu genituen. Polita izan zen, baina ez zuen jarraipenik izan. Gero, promozio lanak egiten hasi ginen, eta horren ostean egin genuen salto zinemaren mundura. Dokumentalak ere egin ditugu; besteak beste, *Sahara Marathon* eta *Lucio*. Ikus-entzunezkoen mundua aldatzen ari da, eta horretara egokitzen ari gara.

Azken urteetan une gogoan-garriak bizi izan badituzue ere, momentu gogorak ere biziko zenituzten, ezta?

Bai, Irusoinen momentu latzak bizi izan ditugu. 1990. urtearen inguruan enpresa itxi edo ez hausnartzen aritu ginen, galerak baike nituen. Lanean jarraitzeko zailtasunak izan arren, aurrera egin genuen; baldintza txarrekin eta soldata murrizketekin. Orain, egoera onean gaudela esan dezaket.

Urte guztiotan pentsatu al duzu zinema utzi eta beste bideren bat hartzea?

Askotan. Kanpotik lan polita ematen du, baina estresagarria da. Ez daukagu ordutegi finkorik; goizean lanera joaten gara eta ez dakigu etxera noiz itzuliko garen. Hala ere, jendeak baloratzen du guk egindako lana, eta horrek aurrera jarraitzeko indarrak ematen dizkit.

Zein egoeratan dago euskal zinema?

Orain dela hamar urteko euskal zinemak eta egungoak ez dute zerikusirik. *Aupa Etxebeste!* lehenen-



Izagirre, beheko ilaran ezkerretik aurrena, 2015eko Goya sarietan. **Uztarrria**

goetako euskal filma izan zen. Pelikula hark izan zuen arrakasta ikusita, beste ekoiztetxeak ere lanean hasi ziren. Ordutik hona, euskarazko film asko ikusi dugu: *Amaren eskuak*, *Loreak*, *Handia*, *Errementari*, *Amama*... Gauzak ondo egiten ari garen seinale da hori. Euskal aktore asko eta asko zoritxarrez lanik gabe dago, ordea. Gainera, lanean ari direnek Espainiako ekoizpenetako aktoreek baino gutxiago irabazten dute.

Proiektu berririk ba al duzu esku artean?

Aurten bi produkzio lan egingo ditugu. Batekin, *La trinchera infinita* filmarekin hasiko gara maiatzean, eta 2019an estreinatuko dugu. Aitor Arregik, Jon Garañok eta

Jose Mari Goenagak zuzenduko dute filma, eta La Claqueta ekoiztetxearekin egingo dugu lan. Zuzendari horiek aktore espainiarrekin gaztelaniazko film bat egingo duten lehen aldia izango da. *La trinchera infinita* 36ko gerrako pasarte gogor eta triste bat da, Sevillan [Espainia] jazotakoa. Benetan gertatutako istorioa da: pertsona bat etxean ezkutatu zen gerratik bueltan, fusilatze beldurrez, eta 30 urte eman zituen bertan ezkutatuta. Pare bat astez egingo ditugu filmaren grabaketak Sevillan, eta, ondoren, hiru bat astetan, Gipuzkoan egingo ditugu grabaketak. Behin horiek amaituta, bost aste inguruko etenaldi bat egingo dugu, pertsonaia

nagusia hogeiki kilo gizendu dadin; izan ere, istorioan zehar argaltzen joango da. Horregatik, lehenengo filmaren amaierako zatiak grabatuko ditugu, eta gero hasierakoak. *Handia* filmarekin ere hala egin genuen. Bestalde, abuztu aldera, komediazko film bat grabatzen hasiko gara Irusoin ekoiztetxe kideok. 2005. urtean *Aupa Etxebeste!* estreinatu zen, eta orain, *Agur Etxebeste!* ekoiztuko dugu. Lan horretan aurreko filmean parte hartu zuten aktoreek parte hartuko dute. Bi filmak guztiz ezberdinak izango dira; bata umorezkoa zen, eta bestea tristea izango da. Bi lanetarako ilusio handia jarri dugu, eta dagoeneko hasi gara lanean.*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Abendaño poligonoa, 2
Tel. 943 335 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 143 443
Zumaia

San Juan, 15 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gaztelaga Kalea, 18
Tel. 943 148 241
Zestoa

Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

“Imagine”

Imajinatu zerurik ez dela, erraza da saiatzen bazara; gure azpiko infernuri gabe, gure gaineko zeruarekin soilik. Imaginatu mundu guztia egunean egunekoa biziz... Imaginatu herrialderik ez dagoela, ez da zaila hori egitea. Inorengatik bizitzeko edo hiltzeko beharrik gabe. Erlijiorik gabe. Imaginatu mundu guztia bizitza bakean biziz... Ameslari bat naizela esan dezakezu, baina ez naiz bakarra. Egunen batean gurekin bat egingo duzulakoan nago, eta munduak bat egingo du. Imaginatu zurea den ezer gabe; gai ote zaren galdetzen diot nire buruari. Handinahirik gabe, goserik gabe. Denok anaituta. Imaginatu mundu guztia munduaren zati balitz...”. (John Lennon, 1971).

Komunitatean sinesten dut. Denona denaren kontzientzian. Auzolanean. Borondatean. Eta horren guztiaren iraupenean... “Imagine” bat dei nazakezue, eta ni ados bakarrik ez, pozik! Lennonen kantuak harrapatu ninduen 14 urterekin, eta kantuarekin harrapatuta libre jarraitzea da nire asmoa!

Kantu hori oinarri hartuta dator nire proposamena. Komunitatearen eta herritarron mesederako, gure bizi kalitatea hobetu, aberastu eta desberdintasunak berdinduko dituen *Imagine* komunitatea osatzean datza nire martxoko bat-batekoa.

Datu base irekia sortzea izango litzateke lehenengo pausoa, bakoitzaren abileziak eta abilezia bera baliotsu izanik. Beraz, pertsona batek izan dezakeen abileziak edo eskaintzen duen horrek balio bat izango luke, eta balio horren arabera izango litzateke trukean jasoko zukeen mesedea. Zer? Zer itxura hartzen diozue proposatutakoari?

Komunitatearen garrantzia

Asmo berri bati hutsetik hasiera eramatearen amildegia beti da handia. Taldean, ordean, amildegia erronka bilakatzen dela uste dut. Barne indarrak kanpoko begirada eraldatzen du, eta edozer egiteko edo gainditzeko gai



||||| **olatz aguado** |||||

||||| **Nirea komunitate librea, arduratsua, koherentea eta egonkorra izatea nahiko nuke**

sentiarazi. Indar horrek, baina, beste taldekoen gertutasuna eskatzen du, ondokoaren epela. Babesa. Jasoko zaituen sarea sortzen du, eta larritasunari erantzun azkar bat emateko aukera eman ere, ematen du.

Larrialdi motaren arabera elkarre espezializatuak sortu ditugu. Handiak dira batzuk, txikiak besteak. Baina gehienek hiriburuetan dituzte beraien idazkaritzak eta harrera zerbitzuak. Urruti. Eguneroko gure bizitzaren parte diren horien, bizitokiko komunitatekoen, ezagunaren, bizilagunaren, beheko dendakoaren edo jangelako sukaldariaren behararen erantzunak gertukoa izan behar du. Behar duen horrek komunitatearen babesa badu, komunitatean sinetsiko du, eta sinesten badu, parte sentituko da eta bat egingo du.

Nirea komunitate librea, arduratsua, koherentea eta egonkorra izatea nahiko nuke.

Desikastea izan beharko luke bakoitzaren eguneroko lana. Ezer ez da betirako; gaur gaur dena, bihar atzo izango baita. Egoeretara moldatzeko eginak gaude, eta moldatze edo egokitze horretan dago iraultza! Imaginatzun?*



Elkarbizitza ere erraustegira

Ez naiz legelaria. Ez naiz politikaria. Ez naiz kimikaria, ezta administraria ere. Ez naiz ezertan aditua, eta aritua ere ezetz esango nuke. Baina herritarra naiz, eta badakit nolako herrian bizi nahi dudana. Errespetuan oinarritutako herrian bizi nahi dut, pertsonak garrantzia duten herrian eta elkarri begiratzeko zein hitz egiteko gai izango garen herrian. Uste dut azken urteetan gauzak asko aldatu direla Euskal Herrian, baita Azepeitan ere; eta, zalantzarik gabe, alde batetakoek zein bestetakoek esfortzu handia egin dute elkarbizitzaren alde.

Hala ere, badira oraindik ulertzen ez ditudan eta ulertu nahi ez ditudan gauzak. Badakit botereak itsutzen gaituela, politikan denak duela balio, eta egoskorkerian, ezker-eskuin, goikoek eta behekoek antzera jokatzeko dute, dugula. Baina joko politikoaren eta ondokoari bizitza suntsitzearen artean bada marra gorri bat, eta nik ez dut nahi bizi marra hori errespetatzen ez duen herrian. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko zuzendaritzak, EAJren eta PSE-EEren gehiengoarekin, marra gorria pasatu du.

GHK-k 2017ko urrian erabaki zuen salaketa jartzea Iñaki Errazkin Gipuzkoako Ingurumen diputatu ohiaren eta Ainhoa Intxaurrendietak GHK-ko lehendakari ohiaren aurka. Zurbietako errauste planta gelditzearen ondorioz aldundiak galdu duen dirua eskatzen diete, eta hilaren 12an izango da epaiketa.

GHKren arabera, 40 milioi euro itzuli behar dituzte, hainbat hitzarmen etetearen kalte ordain gisa. Izan ere, 2008-2011 agintaldian EAJk aurreratuta eta lotuta laga zituen errauste plantaren proiektua eta lanak, eta 2011-2015 agintaldian, berriz, bertan behera utzi zituen EH Bilduk. 2015ean berriro iritsi zen EAJ erakundera, eta berriro hasieratik hastea egokitu zaio.

Talde batek erraustegia eraikitzea agintzen zuten; besteak, obra horiek gelditzea. Zilegi ziren bi proiektuak, herritarrek aukeratzeko gero.



eneritz albizu

Arrazoiaren jabe izateagatik ezin dugu prest egon ondokoari edozer egiteko

Bilduk irabazi zituen Gipuzkoako aldundirako hauteskundeak 2011 hartan, eta Errazkinek eta Intxaurrendietak hitz emandakoa bete zuten. Ez dut sartu nahi bi proposamenen arteko borrokan; eztabaida honetatik kanpo utzi nahi dut zer den egokiena norentzat. Biek balio zuten.

Ezin bizi

Kontua da herri borondatea betetzeagatik zigortu nahi dituztela Errazkin eta Intxaurrendietak, hau da, programan jaso zuten hori eta herritarrek bozkatu zuten hori egiteagatik. Erraustegia gelditzea eskatu zuen Gipuzkoako gizarteak une hartan, eta hori errespetatu egin behar da.

Ez nau harritzen obrak gelditze horrek sortu zuen ezinegonak, eta ulertzen dut talde politiko bakoitzak bere interesak eta ideiak defenditu behar dituela. Baina bi pertsona hatzarekin seinalatzea eta haien bizitza horrela mugatzea ez du izenik. Zigorra ezartzen bazaie, bizitza osoan soldata enbargatuta izango dute biek, ezingo dute jabetzarik izan, ezingo dute bizitza proiektu batean inbertsiorik egin, ezingo dute familian lagundu. Ezingo dute bizi. Errazkin eta Intxaurrendietak lotuta geldituko dira.

Arrazoiaren jabe izateagatik ezin dugu prest egon ondokoari edozer egiteko. Indar erakustaldi bat al da hau edo oilarren arteko borroka? Ez dut uste hori denik politika egitea; eta, hala bada, ez dut politikaz ezer jakin nahi. Ez nago prest elkarbizitza erraustegira botatzeko; eta, horregatik, Ainhoa eta Iñaki, nire babesa ere baduzue.✱





EUSKARALDIA

EUSKARAK
365
EGUN

Batzordean parte hartzeko,
Euskaraldiaren bueltan antolatzen diren
ekintza zehatzetan laguntzeko
edo informazioa jasotzeko

EMAN EZAZU IZENA

euskarapatronatua@erabili.eus-era idatzita edo
Interneteko galdetegia beteta

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

**GORA. Aurkeztu dute Euskaraldia.**

Joan zen martxoaren 20an Euskaraldia egitasmoa aurkeztu zuen Kike Amonarriz soziolinguistak Sanagustinen. Dozenaka herritar izan zen solasaldian. **Uztarria**

**BEHERA. Ondo ingurumenaren kontzientzia izatea, baina...**

Herriko saltoki batean ingurumen kontzientzian eragitea xede duen kartela jarri dute. Ondo, baina euskaratzen badute, askoz ere hobeto. **Uztarria**



Maider Etkezabal.

ESANA DAGO

“Txinara euskal selekzioa ordezkatzera joan arren, ez digute inolako laguntzarik eman euskal erakundeek”

MAIDER ETXEZABAL
sokatiralaria

“Harro egoteko moduko erabakia hartu genuela pentsatzen dut; ez naiz egindakoaz damutzen”

“EH Bilduren alternatiba jipoitzera joan dira, gobernuan izanda ere, kontraboterea ginelako”

IÑAKI ERRAZKIN
Ingurumen diputatu ohia

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 beheak 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOYA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Tantaka, aleka

Gure lagun Trump ezezkoan badago ere, aldaketa klimatikoarena egia hutsa da. Dakitenek diotenak ez du zalantzarako tarterik. Hemendik aurrera dena izango da muturrekoa, zerotik ehunera dena, lñaki Tikiye baino azkarrago. Oraintxe bero jasanezina, oraintxe inoizko hotzik hotzena, berehala Nuarbeko urtegia hustuko duen lehortea, handik bi egunera Nuarbeko urtegiko ateak ireki behar.

Aldaketa klimatikoaren eragina gizartean ere nabaria da. Hanka bikook ere, muturretik muturrera gabiltza aspaldian; dena puztu eta dena hustu. Goizean negar malko eta zotinka,

arratsaldean barre algara eroan. Izen-abizenak dituen haur baten hilketa krudelak sutzen gaitu eta milaka haurren miseriaren aurrean bestaldera begiratzen dugu; aldarrikapen zuzenen alde, kolpetik kaleak gainezka betetzeko gai garen abiadura berean, aldarrikapenak ahazteko edo alde batera uzteko gai garen bezala. Gauza asko egiteko gai gara, baina gauzak zergatik eta zertarako egiten ditugun gehiegi pentsatu gabe egiten ditugulakoan nago. Dantzarako prest, baina txistua besteen esku.

Aldaketa klimatiko honetan, adinekoengan daukat fede bakarra. Badakite zer nahi duten

eta hori lortzeko beharrezkoa den guztia egiteko prest daude. Adinekoak eskola zaharrekoak dira. Belar motzean haziak, gose eta gerraren seme-alabak, bibotedun txikiaren kontra ezkutuan eta isilean borroka egindakoak, sinesten zutenaren defentsan, grisen aurrean korrika egindakoak. Dantzarako prest daude, baina txistua ez ezik, orkestra osoa daukate. Baserritarren gisan, badakite uzta ona jasotzeko euri txikia eta eguzki gozoa behar direla. Jakin badakite lapikotik babak norberak atera behar dituela. Egon hadi besteen zain, eta kibratuko duk mixeria. Iraultza, tantaka, aleka.✱



txetxu urbieta

IKUSTEKOAK



▲ FURGONETA ZURIAK SOLIK.

Martxoaren 16ko estampa: 15:00ak ingurua zen, eta Perez Arregi plazatxoan bilkura egin zuten zuri koloreko furgonetek. Argazkia ateratako unean, bost ibilgailu zeuden plazatxoan aparkatuta. Gehiago elkartu ote ziren? Eta beste koloreren batekoren bat? Furgoneta ote zen hura ere? 📞📧 **Uztarria**✱

||| MARTXOKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN... |||



Lehendakari berria: Olatz Prat

KULTUR MAHAIA. Asko poztu nau Azpeitiko Kultur Mahaiko lehendakari berria Olatz Prat izango dela jakiteak. Garbi dut pozez eta indarrez eutsiko diola postuari, horretarako ere talde polita du inguruan. Kulturak gure herrian izan duen gorakadak ezin gaitu bertan gozo utzi. Argi izan behar dugu beti dagoela zer egina, beti daude erronkak, eta Pratek badaki ondo hori. Animo, Olatz!



alex silva



Birziklatzearen ajeak

EDUKIONTZIAK. Azken egunetan aldaketa asko izan dira birziklatzeko guneetan eta ontzietan, baita eztabaidak ere. Tartean, xelebrekeriak ere ikusi ditugu: Sanjuandegin, esaterako, espaloian edukiontziei eta kotxei eman zaie lehentasuna, oinezkoen gainetik. Harritzekoa!



Hemen gaude, pentsioen alde

%0,25 EZ. Asko eskertu behar dugu gure helduak pentsio sistema publiko duin baten alde erakusten ari diren jarrera; urteak lanean pasatu ondoren, zer gutxiago erretirora iritsitakoan pentsio duinak izatea baino. Babesa behar dute, ordea, lortzen dutena lortzen dutela gure-

tzako ere izango delako. Lerro hauekin, kalea hartzen jarraitzeko eta irabazi arte borrokan jarraitzeko animoak eman nahi dizkiet, baita gainerako herritar guztion kolaborazioa eskatu ere, pentsio duinak eskubide bat direlako.✖

INKESTA

ETxeko balakoa
Lorez apaintzen
al duzu?

Ainitze Agirrezabala

SOLEDAD ORBEGOZO

67 urte



**“Oso gustuko
ditut loreak,
alaitasuna dira.
Baserriko balkoian
geranioak ditut eta lorategian
larrosak. Ez diet, ordea, konturik
esaten Goenkaleko Maria Luisak
bezala. Kar, kar, kar...”**

MARI CRUZ GARCIA

72 urte



**“Ez. Bizilagunek
badituzte, baina
ureztatzean
dariola hasten
dira, eta udazken aldera, berri-
z, hostoak galtzen dituzte. A zer
narraskeria!”**

KARLOS SEGUROLA

51 urte



**“Ez dakit loreak
zaintzen. Bizitzan
bitan erosi ditut,
oparitzeko. Neuri
behin erregalatu zidaten bat,
baina hil egin zitzaidan”.**



Azpeitiyen, natul

Duela pare bat hilabete, Natul euskara elkar-
teak azpeitiarrez natul jarduteko baliagarriak diren
hitzen eta esamoldeen bilduma aurkeztu zuen,
udaleko eta herri aldizkari honen beronen ordezkari-
ek lagundurik. Baina liburuxkan jasotako euskal-
kiko, azpi-euskalkiko eta herriko hizkerako hitz eta
esamoldeez gain, bertan, behin eta berriz “Azpeitin
honako hau”, “Azpeitin beste hura” entzutea egin
zitzaidan deigarria... Natural zioten horrela, “Azpeitin”.
Baina, natul? Seguruenik, mahai hartan zeuden
denak baino zaharragoa naizelako, belarrian
zitzatadaxoa sentitzen nuen *Azpeitin* hura entzuten
nuen bakoitzean. Ezin ohitu. Izan ere, *Azpeitiyen*
(eta *Axkottixen*) esan eta entzun izan dut betidanik.

Eta zergatik, orduan, esaterako, Azpeitiko, eta
ez *Azpeitiyeko*? Bada –barkatuko didazue txapa
etimologikoa–, Azkoitia eta Azpeitia izenek, Fair-
ren anuntzioko Villarriba eta Villabajok bezala, izen



imanol amiano

arruntetan dutelako jatorria (izan *Haitzgoitia* eta
Haitzbeitia, izan *Urazgoitia* eta *Urazbeitia*, Izarraitz
edo Urola sorburu); amaierako -a hori artikulua da,
eta, beraz, beste edozein hitz arrunt bezala deklinatu
behar ditugu: *herritik*, *herrire*, *herriko*... baina
herriye (herria) eta *herriyen* (herrian); hau da, *Az-
peitiye* eta *Azpeitiyen*. Besterik da izen berezi ba-
tetik datorrenean: Donostia, kasu, Done Sebastia-
netik, antza; amaierako -a hori hitzak berea du, eta
beti darama, guk gure herrietako deklinatze mo-
duekin parekatu eta *Donostiko* esan arren, Erren-
terian dendari zeuden Donostiako hiru damatxo
haiek ondo jakin moduan.

Baina, tira. Hizkuntzak bizirik daude. Eta bizirik
daudelako, aldatu egiten dira. Garai eta egoera
berrietara egokitzen dira, bizirauten. Eta askotan,
hiztunek, jakinaren gainean egon ala ez, barne
arauak hautsi eta aldatu egiten dituzte. Eta hala
egiten badute, hala beharko.

galdetzen hasita, gure esku dagoren
ekainaren 10eko giza katean, non beteko
dituzte azpeitiarrek kilometroak? Uztarria

Nola esan agur, Azpeitia

Nola esan adio zuri Azpeitia... Ez dut agurtze-
ko modurik topatzen. Borganen honako hitz hauek
hartuko ditut bizi dudana deskribatzeko: “*Entre mi
amor y yo han de levantarse, trescientas noches
como trescientas paredes, y el mar será una magia
entre nosotros. No habrá sino recuerdos. Oh tar-
des merecidas por la pena, noches esperanzadas
de mirarte, campos de mi camino, firmamento, que
estoy viendo y perdiendo... Definitiva como un
mármol, entrístecerá tu ausencia otras tardes*”.

Agur esatea ez da inoiz erraza, baina azken arti-
kulu hau eskerrak emateko baliatu nahi dut. Mila
esker, hemen geratuko zaizkidan lagunei, lagunak
baino familia baitira niretzat. Zuen ereduari esker
ikasi dut maitasunean ekintzak hitzak baino garrant-
zitsuago direla eta lotura guzti horiek odolak soilik
bana ditzakeela. Zuen maitasunak ez du baldintza-
rik izan, irri edo malko artean jaso baitut. Nirekin era-
mango zaituztet, eta ni hemen geratuko naiz zuekin.



linette montalvo

Eskerrik asko, Azpeitia, zure bihotza zabaltzea-
gatik, sartzen lagatzeagatik, esperientzia hau bar-
rutik bizitzeko aukera emateagatik, berezi sentia-
razten eta ahotsa edukitzen uzteagatik; hainbeste
ikasi dut, hainbeste sentitu dut bertan...

Noan lekura noala ere, babestu egingo zaitut,
zure dohainei buruz hitz egingo dut. Zutik mantendu
zaitez, duin, ez amorerik eman, jarraitu borrokan...

Nire Borinken lurraldean badugu Euskal Herrian
nahikoa ezaguna den abesti bat, hemengo helduen
artean, behintzat, ezaguna dena: *En mi viejo San
Juan*. Gaur nire aberriari baimena eskatuko diot
honako hitz hauek zuri eskaintzeko, nire bigarren
aberiari eskaintzeko hitz horiek.

“*Me voy, ya me voy, pero un día volveré... A bus-
car mi querer, a soñar otra vez, en mi querida Az-
peitia... En mi querida Euskal Herria...*” Nire Azpei-
tia maitea, nire Euskal Herri maitea.

HAU HOLAXEENK

AZPEITIA

AZKENEAN HOGEI METROKO ZORTZI HIZKI ASKI IZAN DIRA
BEHINGOZ AZPEITIA MUNDUKO MAPAN KOKATUTA UZTEKO.



enok sudupe

Eskerrak

Aurreko hilabetean martxoaren 8ko greba feministaz hitz egiteko gogoari eutsi izan ez banio, karaktere guztiak modu paternalista batean idazteko erabiliko nituzkeen. Emakumeak bultzatzen ari zirenez, egin behar luketenaz, gizonok hartu behar genukeen lekuaz eta abar luze batez hitz egingo nukeen. Gizon “feministaren” eta “progrea- ren” jantzia soinean nuela, ordenagailu aurrean jarriko nintzatekeen eta orrialde hau bete- zeko hitzak aukeratuko nituzkeen, feminis- moaz artikuluren bat irakurri izanagatik edo Federiciren izena ezagutzeagatik, nire burua-

ri egozten diodan zilegitasunak bermatuta. Epairen bat erantsiko nuen ziurrenik, eta izan zitekeenaren inguruan teorizatu, begirada “morearekin” ikusten nuena kontrolatzeak in- gurukoak sostengatuko balitu bezala. Lezio- ak mozorrotuko nituzke iradokizunen itxura demokratikoaz.

Baina etorkizunetik begiratu diezaiokegu jada greba egun hari, eta eskerrak emateko kemena besterik ez dut. Eskerrak, zalantze- tan murgildu gintuzuelako gure ereduak ez- baijan jarritz; eskerrak munduan egoteko beste modu batzuk azaleratu zenizkigutela-

ko; eskerrak gure oinarriak astintzearekin ba- tera, oinak lurrean jartzeko saiakera burutu zenutelako; eskerrak pribilegioen abantaila, kontraesanen amildegi izan daitekeela era- kutsi zenigutelako; eskerrak egoeraren kon- trola ez izatearen deserosotasunarekin adis- kidetzeko aukerak eskaini zenizkigutelako; eskerrak batzeak eta sentitzen dena konpar- tizeak sor dezaketen indarraren erakusleho bihurtu zinetelako. Eskerrak... “Eskerrak ahu- lak garen”, dio kantuak. “Eskerrak malguak garen”, diot nik. Eskerrak ez nuen honi buruz udaberria loratu aurretik idatzi.*



|||||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!

Aizkolariari egokitu zaio hil ho- netako galderei erantzutea.

Zerk erakarri zintuen aizko- rara?

Aizkoraren bueltan mugitzen den guztiak.

Esaerak zera dio: “Nolako egurretik, halako ezpala”.

Arrazoi galanta, onerako eta txar- rarako.

Pertsonen edo enborren azala kentzen da errazago?

Enborrena. Pertsonari azala ken- tzeke kolpe handiagoak eman be- harra dago.

Zer egin behar da amodioa ez kamusteko?

Ahalik eta ondoen zorrozuta man- tendu.

Ba al dago neurrira egindako pertsonarik?

Halakorik ez da existitzen! Beti egoten da bat hobea.

Sexu kontuetan, kolpe handi- koa edo txiki askokoa zara?

Handikoa edo txikikoa, intentzioa behintzat izaten dugu.

Aizkolarien eskuak zertara- ko dira onak?

Latz samarrak izan arren, azkura kentzeko balio dute.

Aniztasuna iritsi al da aizko- raren mundura?

Ari gara pixkanaka-pixkanaka kirol hori modernizatzen.

Zeren alde egingo zenuke apustu?

Herri kirolak indartzearen alde.

Noiz lotsatzen da Mikel?

Horrelako elkarriketak egiten diz- kidatenean.

Irabaztea ederra da. Galtzeak zer du ona?

Ezer gutxi, baina, izatekotan, egin- dako akatsetatik ikasten dugula.

Aizkoran plazara atera aurre- tik sexu jolasik bai?

Pare bat eguneko tartea izanez gero, hobe!

Banaka edo binaka?

Banaka.

Nola ligatzen da Mikelekin?

Zaila da, neu joaten naiz eta!

Pertsona erreferente bat?

Aitona zena.

Gustuko duzun zure gorputz atala?

Eskuak.*

|||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

|||||MIKEL LARRAÑAGA|||


|||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza: Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu 688897920
Hitzorduak, apirila: hilaren 14an
(16:00-19:00) eta 25ean (10:00-13:00).

Adina. 28 urte.

Herria. Azpeitia.

Bizitokia. Azpeitia.

Lanbidea. Pentsu banatzailea.





Sortu eta jo, norberak

Mondocaneko eta Delient taldeetako gitarristak musika jo ez ezik, haridun instrumentuak ekoizten ditu. Irudietan jaso du prozesua Uztarriak. 📷 Oihan Amezua 📎 Ainitze Agirrezabala



▲ **GITARRAREN GORPUTZA ETA TAPA KOLAREKIN ITSASTEN.**

Interneteko foroetan eta liburu espezializatuetan “orduak pasatuta” ikasi du Amezuak gitarrak egiten etxeko garajea. Haltza, sapelia, ebanoa, khaya eta Indiako santu egurra erabiltzen ditu instrumentuak egiteko, eta, oro har, Madrilatik eta Valentziatik ekartzen du materiala. Haiseran, Oier Aleman lagunaren tailerrean aritzen zen lanean, baina enpresa hura itxi egin zen, eta, orduan erosi zituen beharrezkoak dituen makineria eta tresna guztiak.

▼ **TXANTILOIAK MARKATZEN.**

Gitarrak ez ezik, baxuak ere egin izan ditu azpeitiarrak. Horiek egiteko diseinuak marka ezagunen ereduetatik hartu izan ditu, baina “diseinu propioak sortzen” ere hasi da.

▲ **TXANTILOIA.**

Musikazale amorratua da Haritz Amezua (Azpeitia, 1979), eta 15 urterako hasi zen gitarrarekin “zarata” ateratzen. Anplifikadorea erosi zuen Ingalaterran, eta harentzat bozgorailua berak egin zuen, fresatzailea erosita. “Hautsak hartzen zegoen [fresatzailea], eta instrumentuak egiteko oinarritzko lau erreminta erosi nituen, eta gitarrak egiten hasi nintzen”, azaldu du. Irudian, gitarraren diseinua aukeratu ondoren txantiloia egiten.





▲ ZERRAZ MOZTEN.

Egurak eskuilatu eta gitarraren eskala aukeratu ondoren, trasteak zerraz moztetu ditu Amezuak.



▼◀ HARDWARE-A MUNTATZEN.

Ofizioz trokelgintzan aritzen da azpeitiarra Zarauzko enpresa batean, baina denbora librean, garajea sartu eta orduak eskaintzen dizkio bere zaletasunari. Gitarra edo baxua hasi eta buka ekoizteko, lanbide desberdinak kontrolatzen ditu Amezuak. Goi mailako mekanizatu ikasketak egin zituen eta elektronika arloa ere kontrolatzen du. Argazkian, gitarraren hardware-a muntatzen ageri da.



▼ GITARRAREN GIDERRA.

Trasteak zerraz moztu eta gero, gitarraren giderra kolaz itsasten du azpeitiarrak, eta, ondoren, zehaztasun handiz giderrak akatsik duen aztertzen du.



▲ ZULOAK EGITEN.

Zulatzeko makinarekin larako etxeentzako zuloak egiten ditu.



◀ DOITZEN.

Txantiloak eta gorputzak fresagailuz doitzen ditu.

▼ PROBATZEN.

Behin gitarra bukatuta, larakoak doitzen ditu. Argazkian, Amezua eta bere hainbat artisau lan.



Bizitzaren zaintzaile

Herritar ugari aritzen da zaintza lanetan. Pertsonak zaintzen dituzte, isilean eta ezkutuan askotan, baina ezinbesteko da horien eguneroko jarduna. 📌 **Ihintza Elustondo/Julene Frantzesena**

Adina, gaixotasunak edo bestelako arrazoiren bat tarteko, lehenago edo beranduago edonori tokatuko zaio inguruko norbait zaindu beharra, edo gutxienez, haren zaintzaren inguruko erabakiren bat hartu beharra. Bizitzaren legea da hori, saihetsezina.

Asko eta asko dira zaintza lanetan aritzen diren herritarrak; ogibidez batzuk, eta gertukoei laguntzeko helburuarekin besteak. Haietako gehienak emakumeak dira oraindik, nahiz eta gero eta gehiago diren zeregin horietan aritzea erabakitzen duten gizonak. Baina, gaur-gaurkoz, isileko izaten jarraitzen dute zaintza lanek; gizartea sostengatzeko ezinbesteko diren arren, zaintzaile asko ikusezinak dira, haien lanak ez baitu behar bezalako aitortzarik gizartean.

Zaintza lanetan aritzen diren hainbat herritarrekin hitz egin du Uztarriak.

ETXEZ ETXEKO LANGILEAK

Azpeitiko Udalak martxan jarritako etxez etxeako zerbitzuan lanean ari dira urteetan Kontxi Artola (Azpeitia, 1960), Amaia Larrañaga (Azkoitia, 1966) eta Josune Aldalur (Azpeitia, 1969). As-telehenetik ostiralera, orduka antolatuta, 07:00etatik 21:00etarak lan egiten dute, eta gaueko txandan beste zenbait langile aritzen dira. Adinagatik edo bestelako arazoengatik laguntza behar duten herritarrei eguneroko zereginetan laguntzen diete: ohetik jaikitzen, gosaltzen, dutxatzen, sendagaiak hartzen...



Larrañaga, Artola eta Aldalur, etxez etxeako langileak. ||| **Ihintza Elustondo**

Egunean, lau-bost-sei etxetatik pasatzen dira hiru langileak, eta, gehienetan, 45 minutuko zerbitzuak eskaintzen dituzte. Askotan, lana ondo egiteko, nahi baino denbora gutxiago izaten dutela diote. "Egin beharrekoak azkar egin eta erabiltzailearekin hitz egiteko ia denborarik hartu

gabe, presaka beste etxe batera alde egin behar izaten dugu". Atea itxi, txipa aldatu eta beste bat zabaltzen dute. "Azpeitiko langilerik azkarrenak gu gara", adierazi du Artolak.

Eguneko zerbitzua eskaintzen duten hogeitahiru langileak emakumeak dira, eta ez dute uste hori

kasualitatea denik. Diotenez, gizonezkoak ere aritu izan dira kurtsoak egiten, baina gero ez dute lanean segi. "Gizon batek nirekin egin zuen kurtsoa, baina gero lanean hasi zen, eta esaten zuen ezin zuela, jendeak nahiago zituela emakumeak", azaldu du Aldalurrek. "Beti entzun izan dugu: 'Emakumeak hobeto egingo du, gizonak ez daki eta'", erantsi du Larrañagak. "Zaintza gurea da", ondorioztatu du Artolak.

Beraiena "lan polita" dela dioten arren, alde gogorrek ere badituela azaldu dute. Batetik, indar lan asko egin behar izaten dutela nabarmendu dute, gaixoak ohetik jaikitzerakoan nahiz haiei oheratzen laguntzerakoan. "Badirudi indarra gizonezkoek bakarrik dutela, baina guk ere zerbait badaukagu", adierazi du Artolak. Horrez gain, gaixoak galtzea gogorra egiten zaiela azpimarratu dute. "Lehenago edo beranduago hil egiten dira, eta sekulako kolpea izaten da hori". Denborarekin lehen bezainbeste eragiten ez dien arren, beti izaten dela "belar-rondokoa" esan dute.

Lana ondo egiteko sekreturik ez dagoela uste dut Aldalurrek. "Azkenean, zuk goxo hartzen badituzu, denborarekin ikasiko duzu lana ondo egiten. Ez da hain garrantzitsua jakitea postura honetan atera behar duzun ohetik edo beste era horretan...". Guztiek nabarmendu dute "sekula" ez dutela arazorik izan inorekin. "Zaintzen ditugun pertsonak maitatzera iristen gara, eta beraiek gu maitatzera ere bai. Azkenean, gure familiakoak bezalaxe bihurtzen dira", azaldu du Aldalurrek.

Hiru langileek diote erabiltzaileek asko eskertzen dutela beraien lana, baina sozialki ez dela gauza bera gertatzen nabarmendu dute. "Ipurdiak garbitzen ibiltzen diren horiek gara gu. Baina uste dugu hori baino zerbait gehiago egingen dugula", esan du Artolak.

ETXEKO ZAINZAILEA

2012an iritsi zen Nikaragutik Azpeitira Erika Vanegas (Ocotál, Nikaragua, 1981). Caritasen bitartez hasi zen lanean, eta harrezkero, adineko herritarrak zaintzen egiten du lan, beren etxean egun osoz. "Azpeitira 2012ko irailean heldu nintzen, eta 2013ko urtarrilean hasi nintzen lanean. Lanean eta bizitzen, hemen gelditzea erabaki nuen".

"Herri lasaia" denez, Azpeitia "asko gustatzen" zaiola dio Vanegasek. Gainera, Azpeitian lan egin duen familietan "oso ondo" hartu dutela esan du. "Aurretik zaindu nuen adinekoaren sendiaren bidez hasi nintzen gaur egun egiten dudana zaintza lanean. Aurreko familia hartan zaintzen nuen adinekoa hil zene-

an, hala esaten nion neure buruari: 'Azpeitian aurkitu nahi dut lana berriz ere'". Adinekoak zaintzea "atsegin" duela dio nikaraguarrek: "Haurrak bezalakoak dira adinekoak, eta pazientzia behar da. Zaindu eta goxatu egin behar dira. Eta batzuetan kalera irtetera bultzatu behar dira, bestela ohean geldituko lirarteke-eta egun osoan".

Lanean hasi zenetik, etxeetan adinekoak zaintzen aritzen da Vanegas. "Beti horretan aritu izan naiz, eta ez zait batere gogorra egin horrela lan egitera ohitzea. Beno hasieran bai, baina ja ohitu naiz, zer erremedio!", azaldu du. Bere egitekoa zaintzen duen adinekoa egun osoan eta osotasunean zaintzea dela dio. Asategunetan ordu batzuk izaten ditu libre egunero, eta larunbat eguerditik igande gauera ere jai izaten du. "Gustura nago, lagunekin egoteko, paseatzeko edo lasai egoteko aprobetxatzen ditut asteburuak".

Zainketa lanak baloratzen direla uste du Vanegasek, eta bera "zoriontsu" dela azaldu du. "Etorri nintzenetik gustura bizi naiz. Beti ondo tratatu naute familietan, eta hori da garrantzitsuen. Ez dut arazorik izan". Azpeitira etortzerako bazekien zaintza lanetan aritzeko aukera izan zezakeela; izan ere, hark dioenez, Nikaraguan ja esan izan zioten halako edo bestea umeak edo adinekoak zaintzen aritzen zela Euskal Herrian. "Kontzientzia hartuta etorri nintzen Azpeitira", azaldu du.

Nikaraguan familia du Vanegasek, eta Az-

peitira etorri zenetik bitan joan da hara familia bisitatzerara. Beharbada, gogorrena horixe egingen zaio; han familiarekin egon, haiek utzi eta Azpeitira itzultzea. Izan ere, hiru seme-alaba ditu han, eta bere amarekin bizi dira. "Gogorra da horrela bizitzea, baina ez dago besterik. Nikaragua garestia da eta soldadak oso baxuak dira. Hona etorri izan ez banintz, seme-alabek ezingo zuketeen unibertsitatean ikasi".

Dena den, Nikaraguako hainbat emakume bizi da Azpeitian, eta haiekin harremana duenez, beren herrialdearekin duten lotura horri "eusten" diotela esan du. "Lagun bat, adibidez, Azpeitian bizi da. Beste asko ez nituen ezagutzen, baina hemen egin dut haiekin harremana". Argi du Vanegasek: "Osasuna eta lana ditudan bitartean, aprobetxatu egin behar dut. Hemen jarraitu nahi dut, batere zalantzarik gabe".

GURASOEN ZAINZAILAK

Hamabi seme-alaba izan zituen Monika Etxenagusia (Errezil, 1928), eta haiek zaintzen eman ditu urte asko eta asko, bakoitza ahalik eta ondoen hazteko eta hezteko ahaleginean. Denbora luzez Manuel Iturria senarra izan zuen ondoren, baina duela hemezortzi urte hil zen hura. Azpeitian bizi da Etxenagusia duela 53 urtetatik, eta, egun, 89 urte ditu. Duela gutxi arte oso autonomoa izan bada ere, zenbait gauzatarako laguntza behar du egun, eta hainbeste urtean



Vanegas Azpeitiko adineko bat zaintzeaz arduratzen da. ||| Iulene Frantzesena



Balbi, Lurdes, Monika eta Mari Jose ama-alabak. |||Ihintza Elustondo

eman eta eman aritu ostean, seme-alaben laguntza jasotzen ari da orain.

82 urte zituela, tronbo bat izan zuen hankan, eta, ordutik, galtzerdi estu batzuk jantzi behar izaten ditu goizero-goizero, eta oheratzerakoan kendu. Horretarako, ordea, laguntza behar du. Gero, herpes zoster baten ondorioz, aurpegiko paralisi bat izan zuen, eta harrezkero, oreka arazoak ditu bakarrik ibiltzeko. Egoera berri horren aurrean, familiak erabaki zuen ama zaintzeko elkarren artean moldatzea. Beraz, erabaki zuten Azpeitian bizi diren alabek txandaka amaren etxean lo egitea. Alaba horietako hiru dira Mari Jose Iturria (Errezil, 1961), Balbi Iturria (Errezil, 1954) eta Lurdes Iturria (Errezil, 1958).

Ama umoreko eta sasoi oneko dago, eta memoria ere, alabek baina hobea du, haien esanetan. Baina badaezpada, ez dute bakarrik uzten. "Nik uste dut bera ere lasaiago dagoela horrela", adierazi du Mari Josek. Goizean, gaua etxean pasatu duen alaba joatean, Balbik hartzen du amarekin egoteko ardura. Bien artean etxeko lanak egin eta bazkaria prestatzen dute, eta, egunero, mahaia bete lagun elkartzen dira bazkaltzeko Etxenagusiarren etxean. "Gaur ere, eltzekada babarrun prestatu dugu, odolki eta guzti", bota du umoretsu hark.

Arratsaldean, berriz, alaba batekin ez bada bestearekin, pasierara irteten da, eta, ondoren, karta jokoan aritzen da lagunekin, Sanjuandegiko jubilatuaren elkartean. Eguna "oso entretenituta" pasatzen duela dio Etxenagusia. Gauean, beste ahizpa batek hartzen du amarenean lo egiteko lekukoa, eta amak azaldu du, telebista pixka bat ikusi eta "lasai-lasai" lo egiten duela. Asteburuak ere familiarekin pasatzen

ditu, eta igandeetan jaioterrira, Errezilera, joaten da bazkaltzera.

Iturria ahizpek diote ez dutela inolako arazorik izan ardura horiek banatzerakoan. Gainera, ez zaie amak lanik ematen dienik iruditzen. "Guretzat egiten duguna ez da lana. Berari oraindik eskertzen ari gara ematen digun dena".

Amak beraiengatik egin duen guztia eta gero, betebeharrak bat dela iruditzen zaie hura zaintzea. "Gure sortzailea izan zen, eta hori ezin diogu eskertu. Egin dezakegun gutxienekoa da bera zaintzea. Barrutik ateratzen zaigu, gainera. Eta hala ere ez diogu eskertuko gugatik egin duen guztia", azaldu du Lurdesek. Amak ere, irribarrea ahoan, esker hitzak baino ez ditu: "Askok estimatzen diet nigitatik egiten ari direna".

BILOBAK ZAINTZEN

Lau biloba ditu Gloria Odriozolak (Azpeitia, 1945). Haren seme batek bi seme dauzka, 10 eta 8 urtekoak, eta beste semeak, alaba eta seme bana, 9 eta 4 urtekoak. Haietako bakoitzaren urtebetetze eguna ondo gogoan du Odriozolak. "Horiek ez zaizkit ahazten, asko maite ditut eta".

Tarteka haiek zaintzen aritzen da amona. Batez ere, seme zaharren umeak zaintzen ditu. "Egurdietan, ikastolan jaso eta etxera eramaten ditut, eta denok elkarrekin bazkaltzen dugu, beraien etxean. Batzuetan, bueltan ikastolara eramaten ditut, eta, tarteka, musika eskolara ere bai. Kotxea daukat, eta poliki-poliki, moldatzen naiz".

72 urte ditu Odriozolak, eta bakarrik bizi da. Duela 35 urte galdu zuen senarra, seme zaharrenak 10 urte eta gazteak 7 zituztela. Egun, bizkarrezurrean izan zuen arazo bat tarteko, "lehen bezain bizkor" ez dagoela dio. Hala ere, ahal duen neurrian bilobei laguntzen saiatzen da. "Nahi nuke gure ume horiekin egoten jarraitu. Horiek ikustean oso pozik sentitzen naiz. Beraiek bizitzeko poz handi bat dira niretzat".

Ez zaio iruditzen lan handia denik egiten duena. "Oso motibatuta nago horrekin, plan polita da. Bestela, besaulki handi batean edo ohean etzanda egongo nintzateke geldigeldi, eta horrek kalterik ez dit egiten. Ez naiz nekatzeko tamainan ibiltzen. Beraiek ahal dutenean moldatzen dira, eta ezin dutenenean, lagundu egiten diet. Baina lanik ez dit eskatzen. Oso pozik egiten dut, gainera".

Berez, Odriozola joaten da bilobak zaintzera, baina umeek zera esaten diote amonari: "Guk



Odriozolak bilobak zaintzen ditu ia egunero. |||Ihintza Elustondo

lagunduko dizugu, amama". Izan ere, bizkarrezurreko ebakuntza eta gero, zenbait muga ditu Odriozolak. Besteak beste, kostatu egiten zaio zapatak janzte, eta bilobek laguntzen diote horretan. "Gainontzean, bakarrik moldatzen naiz, afaria egiteko eta. Bizkarrezurrekoa gertatu zitzaidanean, pentsatzen nuen: 'Karga bat izango naiz nire semeentzat!'. Eta hori ez nuen nahi. Orain, tartean-tartean, mina edukitzen dut, baina moldatzen naiz. Horrenbeste izango nintzenik ez nuen uste. Asko maite ditut bilobak, eta beraiek ere bai ni, eta maitasun horrek uste dut asko lagundu didala".

Egiten duena asko eskertzen diotela azaldu du Odriozolak. "Ondo eskertutakoa naiz. Eta zerbaitetan laguntza behar dudanean –askotan behar izaten dut, lan bat egiteko edo azkazalak mozteko edo–, nola seme batek hala besteak, beti laguntzen didate. Semeekin hartu eman oso-oso ona daukat txiki-txikitatik".

SEME-ALABEN ZAINZAILEA

Gauzak asko aldatu badira ere, gaur egun, oraindik ere, ez da ohikoa aita hartzea seme-alaben zaintzaren ardura. Dena den, badira hautu hori egiten duten bikoteak, eta duela hogeit urte seme-alaben zaintzaren ardura hartu zuen aita horietako bat da Aitor Sorazu (Azkoitia, 1971). "Emaztea haurdun gelditu zenean langabezian nengoen. Emaztea lanean ari zen, eta erabaki genuen nik zainduko nituela umeak". Emaztearen lan egoera "egonkorragoa" zelako eta Sorazuk berak umeen zaintzaz arduratu nahi zuelako hartu zuten erabaki hori: "Betidanik gustatu zaizkit umeak, eta neure seme-alabak beste norbaiten esku utzi beharrean, neuk hartu nuen haiek zaintzeko ardura".

Lau seme-alaba ditu Sorazuk, eta horien guztien zaintzaz bera arduratu da. Hark dioenez, "oso gustura", gainera. "Lehen umea duela hogeit urte jaio zen, eta ordutik hona, haiek zaintzen aritu naiz". Dena den, duela urte batzuk lanean hasi zen arratsalde, eta gero egun osoz, seme-alabak "ja kozkortuta" zeudelako. "Lanean hasita ere, umeen zaintza ez nuen alde batera utzi. Lau umeak jaio eta gero hasi nintzen kirol arduradun lanetan, eta goizetan lau umeak es-



Sorazu lau seme-alaben zaintzaz arduratu da hainbat urtez. ||| **Julene Frantzesena**

natu, jantzi, haientzat gosaria prestatu... Eske-rrak zaharrenak pixka bat laguntzen zidan", dio barre artean: "Baina moldatzen ginen".

Seme-alaben zaintzan murgiltzea ez zitzaion gogorra egin Sorazuri, nahiz eta haurren zaintza egun osokoa, "esnatzen direnetik lo hartzen dutenera artekoa", dela nabarmendu duen.

Azkoitiarrak azaldu duenez, umeen zaintzaz arduratu zen aldiak "sekulako poza" sentiarazten dio: "Beteta sentitzen naiz, nahi nuen zerbait egin nuela sentitzen baitut. Ondo sentitzen naiz, umezalea naizelako eta seme-alabak hazten ikustea gauza ederra delako".

Sorazuk dio zaintza lanak "emakumeekin" lotzen direla askotan, baina gizonak ere lan horietan aritu izan direla: "Pentsa, ezagun batzuek esan izan zidaten: 'Jo, zeinen ondo umeak zaintzen, inbidia ematen didazu'. Baina pasatzen dena da denek ez dutela hori egiteko aukera. Halere, uste dut, nahi izanez gero, edonork egin dezakeela, urte batzuetako kontua baita". Haren ustez, gaur egun, gero eta gizon gehiago ikusten da umeekin, eta gero eta gehiago

dira umeen zaintza lanak partekatzen dituzten bikoteak.

Zaintza lanak ez daudela baloratuta uste du Sorazuk. "Urte pila batean hainbat emakume aritu da zaintza lanetan –oraindik ere ari dira–, eta ez da baloratu batere. Gerora ari gara ikusten zer lan eskatzen zaintzak. Jendea bere inguruan tokatzen zaionean konturatzen da zer lan dagoen atzean; 24 orduko lana da, gelditzeko astirik ematen ez duena eta bukatzen ez dena". Hark dioenez, etxeko lanekin ere antzeko zerbait gertatzen da. "Norbaiti ordaindu behar diozu lan horiek egin ditzan edo zeuk hartzen duzu ardura. Eta lan horiek zeuk egitea erabakitzen baduzu, urte horiek, nolabait 'galdu' egiten dituzu. Baina egin duzuna lana da, ordaindu gabeko lana, ordea. Neuk egin badezaket, zergatik hartu behar dugu norbait lanok egiteko? Gehiago balio al du norbait soldatapean kontratatzeak?". Sorazuk dio lan horiek "norbaitek" egin egin behar dituela nahitaez, eta "baloratu" egin behar direla uste du. "Gaur egun zaintza lanetarako denon beharra dago".*

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKOA (ITE)

JON ESNAOLA
 ARKITEKTO TEKNIKO
 M: (+34) 647 654 506
 T: (+34) 943 15 7000
 E: info@jonesnaola.es
 www.jonesnaola.es

Denbora: zenbat eta zertarako?

Azpeitiko Udalak emakumeen eta gizonen denbora erabileraren gaineko azterketa egingo du. Lan horren helburua da denboraren erabilerak herrian zer ezaugarri dituen jakitea, ondoren berdintasun ikuspegia ezarri eta emaitzen azterketa egiteko. 🍷 **Julene Frantzesena**

Azpeitiko Udalak emakumeen eta gizonen denbora erabileraren azterketa egingo du datozen hilabeteetan. Hainbat fase-tan egingo dute ikerketa, eta datu bilketa egiteaz gain, lanaren xedea da herritarrak gaiaz sentibilizatea eta haiei gogoetarako bide ematea. Leire Etxaniz (Azpeitia, 1978) udaleko Parekidetasun zinegotzia da, eta harekin hitz egin du azterketaz Uztariak.

Zer dela-eta egingo duzue orain denboraren erabileraren gaineko azterketa?

Azken urteetan, ekonomia krisiaren aitzakia erabilita, eskubide urraketa ugari izan da jendartearen. Gainera, testuinguru hori aitzakiatzat erabilita, emakumeen egoerak nabarmen egin du okerrera. Emakume asko eta asko dira ibilbide akademiko eta profesionalak alde batera utzi eta bizitzaren oinarriko sostengu lanak egin beharrean aurkitu direnak. Horiek, gainera, oraindik eta oztopo gehiago aurkitu dute aisiaz gozatzeko.

Martxoaren 8ko protestetan, hain zuzen ere, hori izan zen aldarrietako bat: emakumeak zaintza lanetan duen ardura.

Bai. Milaka emakume atera ginen kalera askotariko zapalkuntzak



Leire Etxaniz Azpeitiko Udaleko Parekidetasun zinegotzia. ||| **J. Frantzesena**

salatzera, eta egungo sistema honi planto egitera. Horrek esan nahi du badagoela zer egin.

Zehazki, zer lortu nahi duzue azterketarekin?

Gizonen eta emakumeen denbora erabileraren errealtateak Azpeitian zer ezaugarri dituen aztertu nahi dugu. Udalak parekidetasunaren aldeko apustu garbia du egina, eta, beraz, gure ardura da egoera aztertzea eta errealtate hori aldatzeko baliabideak eskaintzea. Denboraren erabilera aztertuta jakingo dugu argi eta garbi bizitzaren sostengurako ezinbestekoak diren zaintza lan

horiek nortzuk egiten dituzten. Emaitzen azterketa egingo dugu berdintasun ikuspegia txertatuta, baina, bide batez, herritarrak sentibilizatu nahi ditugu, denboraren erabilera bidezkoa izan dadin lan ildoak finkatzeko.

Azpeitia aitzindari izango da horrelako ikerketei dago-kienez; izan ere, ez dira tokian tokiko denboraren erabilerari buruzko ikerketa asko egin.

Eustatek eta INEk egin izan dituzte denboraren erabilerari buruzko azterketak, baina herrietan, oker ez banago, halakorik ez da egin

gaurdaino. Beste zentzu bat eman eta eduki bat txertatu nahi diogu azterketari; izan ere, herritarren arteko hausnarketa bultzatzeko baliatu nahi dugu lana, izan etxekoekin, lagunekin, senideekin, aldamenekoarekin edo nor bere buruarekin. Askok dugu gaiaz hausnartzeko, eta prozesu garrantzitsua izango dela uste dut.

Nolakoa izango da azterketaren emaitzak eskuratu bitarteko prozesua?

Lehenik, datozen asteetan, sentibilizazio fasea egingo dugu. Elhuyarrek egingo du azterketa, eta enpresa horretako kideak herriko eragileekin elkartuko dira haiei proiektua ezagutarazteko. Ondoren, maiatza eta ekaina bitartean, herritarrei inkestak egingo dizkiete, herriko errealtatea ezagutzeko eta datuak biltzeko. Gaia gizarteratzeko hainbat egitasmo ere egin nahi dugu Azpeitiko Emakumeen Mahaiarekin. Udarako datuak bilduta izatea aurreikusten dugu, eta orduan hainbat espazio zabalduko da gogoetak eta proposamenak egiteko. Gero udalak egin beharko du gogoeta, politika publikoetan zer egin aztertzeke. Datorren udazkenerako edo negurako espero ditugu ikerketaren emaitzak. ✖



Instalakuntza Elektrikoak

Urteko: 618 96 49 55 / Jor: 649 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikainstelmak.com
20730 AZPEITIA



Pinturak eta Parket Laminatuak 

Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

Azpeititik kanpo bizi bazara ere,
jaso herriko berri hilero etxean



uztarria

uztarria@uztarria.eus

943 15 03 58

P

ilotari batek, esku-pilotan aritzen den kirolari batek, hain justu, irabazi zuen iaz Azpeitiko emakumezko kirolari onenaren saria. Maite Iriarte lau eta erdiko Emakume Master Cup txapelketaren bigarren mailako finalera iritsi zen, eta txapelketa horretan egindako lanaren aitortpen gisara jaso zuen aipatutako saria.

Emakume esku-pilotariak denbora tarte laburrean lortu duten ikusgarritasunaren adibide ona izan daiteke Iriarteren saria, baita Emakume Master Cup txapelketek hiru edizio soilekin –binakakoak bi, eta aipatutako lau eta erdikoa– lortu dutenaren seinale ere: esku-pilotan aritzen zen emakumerik apenas zegoela zirudienean, frontoietan eskuz aritzeko gai, pronto eta gogoz dagoen kirolari andana agertu da. Azpeitian gertatzen ari dena da horren erakusle.

Utzitakoari berriro helduta

Txikitan, eskolarteko kirol jardueraren garaian, hasi ziren esku-pilotan jokatzeko Alaitz Badiola (Azpeitia, 1981), Nagore Aramendi (Azpeitia, 1980) eta Oihana Orbegozo (Azpeitia, 1985). 13-14 urteren bueltan, ordea, utzi egin zuten pilota; oso gutxi ziren eskuz aritzen ziren neskak, aurrera egin ahala materiala gero eta gogorragoa... Orain, nerabezarotan utzitakoari heldu diote berriro, eta gus-tura dabiltza. Lorea Artetxe (Zestoa, 1982), berriz, palan aritu ostean ekin dio eskuz jokatzeari. Maddi Unanue (Azpeitia, 2005) da Az-



Ezkerretik eskubira, Nagore Aramendi, Lorea Artetxe, Alaitz Badiola, Oihana Orbegozo eta Maddi Unanue, Ka...

Frontoian ere bai

Gizonen eremua izan da esku-pilota ia osorik, orain arte. Emakume Master Cup txapelketaren aitzakian hasi dira gauzak aldatzen, pixkanaka. 📧📷 Mailo Oiarzabal



rmelo Etxegararen Perdillegiako frontoian.

peitian esku-pilotan hasi diren emakumeetan gazteena. Astean bitan egiten dituzte entrenamendu saioak pilotariek, astearteetan eta ostiraletan. Azpeitikoak dira taldea osatzen duten gehienak, baina beste herrietatik ere etortzen dira, Eneritz Arrieta azkoitiarra edota Hernanin bizi den Patri Espinar bizkaitarra bezala.

Artetxek izan ezik, erreportaje honetarako elkartu diren guztiek parte hartu dute Emakume Master Cup txapelketetan; hori izan da Badiolak, Aramendik eta Orbegozok umetan utzitako frontoira itzultzeko jaso duten bultzada, eta Unanueri pilotaren munduan bidea egiteko lagundu diezaiokeen aukera. "Txapelketa bera esperientzia polita da. Jende berria ezagutzeko aukera ematen dizu, kontaktuak egiten dituzu, eta horrek herrietatik

deitzeko aukera gehiago ere ematen dizkizu", dio Badiolak. "Uste dut txapelketa honek berak bideratu duela orain emakumeen esku-pilotako partidak ere antolatzea. Festetan ere, oraintxe arte mutilek bakarrik jokatzen zuten, bai afizionatu mailakoek, bai profesionalek. Orain, askotan, aurretik gu jartzen gaituzte, neskei deitzen diete", gaineratu du Aramendik.

Iker Amarike pilotari ohia da Emakume Master Cup txapelketa martxan jarri zuena; Larrabetzukoa (Bizkaia) da Amarike, eta herri horretako Txokoan klubak abiatu zuen, hain zuzen ere, emakume pilotarien jardunari zabalakundea emateko lehen proiektua, Bizkaiko Federazioarekin elkarlanean. Handik abiatuta, baina federazioetatik kanpo, sortu zuten Amarikek-eta emakume pilotariei, eta berezi-

Esker ona

||| **Herrian duten babesaz, eskaerarik bala duten galdetuta, honela erantzun du Badiolak: "Ez gaude kexatzeko. Emakumeen Txokotik bideratuta gaude, baliabide guztiak (frontoiak, materiala...) dauzkagu eskura. Hortik, eskatzeko ezer ez daukagu. Horrela jarraituz gero, ez gara kexatuko! Alderantziz, eskertzeko gaude".**

ki esku-pilotariei, inoiz ez bezalako oihartzuna ematen ari zaien txapelketa.

Eragiteko aukera eta beharra

Oihartzun horretan ezinbestekoa ari da izaten hedabideen eta, bereziki, telebistaren rola. "Telebistak asko zabaltzen du abanikoa. Ikusgarritasuna emate horrekin, gazteek ere ikusi egiten dute, eta batzuk hasi dira dagoeneko galdezka, nola eta noiz ibiltzen garen. Hori abantaila da", aitortu du Badiolak.

Gazteen artean esku-pilotarako joera eta zaletasuna areagotzea da, izan ere, txapelketetan ari diren emakumeen nahia. Denbora gutxian "pauso handiak ematen ari" direla deritza Aramendik, baina denek dute argi lantzeko asko dagoela oraindik. Izan ere, beren haurtzarotik gauzak ez direla asko aldatu ematen du; neskarik apenas aritzen den pilotan adin txikietan. "Beti harritu izan nau txikitan, pilota gozo-gozoekin ibili, eta hala ere, zer neska gutxi aritzen den pilotan. Azkenean, beste edozein kirol bezalakoa da, baina ez dago normalizatuta. Bada pixka bat arraroa, mutilentzat bakarrik dela ematen du. Gu orain hasita, bidea pixka bat zabaldu egingo da? Ez dakit", dio Aramendik. "Zerbaitek huts egiten duela iruditzen zait umetan, ez dela bultzatzen edo". Azpeitian, Ilunpe klubean, "txikietan pare bat neska" besterik ez dabilzala azaldu du Badiolak. Unanueren kasua salbuespena da, beraz. "Ez, ez ditut asmo horrekin ikusten", dio berak, bere inguruko lagunak pilotan probatzeko gogoarekin ikusten al dituen galdetuta.

Hala ere, badute gauzak aldatuko direnaren esperantza. "Uste dut gure adinekook bidea ireki dugula pixka bat, eta hauek [Unanuez ari da] aukera gehiago edukiko dituztela, txapelketa mordoa izango dutela", aipatu du Orbegozok. Frontoian ere, harmailetan ez ezik kantxan ere, tokia lortzen jarraitu nahi dute emakumeek.✱

Badator Gazte Astea

Gaztetxeak aurten ere antolatu du Gazte Astea. Apirilaren 23tik maiatzaren 1era bitartean askotariko ekintzak izango dira. Film laburren txapelketa antolatu du aurreneko aldiz.  Julene Frantzesena

Apirilaren bukaerarekin iritsiko da Azpeitiko Gaztetxeak antolatutako Gazte Astea. Aste bete ekitaldi antolatu dute Gaztetxeak kideek, eta askotariko ekintzez gozatu ahal izango dute herritarrek apirilaren 23tik maiatzaren 1era bitartean. Besteak beste, hitzaldiak, mahai-inguruak, afariak, parodia eta kontzertuak antolatuko dituzte egun horietarako. Horrenbestez, Langileen Nazioarteko Egunarekin bukatuko dute astea.

Film laburren txapelketa

Aurrenekoz, film laburren txapelketa antolatu du Gaztetxeak, herritarren irudimena dantzan jartzeko asmoz. Joseba Sarrionaindiaren *Ez diren gauzak* olerkiaren lehen esaldia aukeratu dute Gaztetxeak kideek ikus-entzunezkoak

DATUAK

Zer. Gaztetxeak Gazte Astea. **Eguna.** Apirilaren 23tik maiatzaren 1era (biak barne). **Tokia.** Azpeitiko hainbat gune, baina, batez ere, Gaztetxea. **Antolatzailea.** Azpeitiko Gaztetxea.

egiteko gaitzat: "Litezkeen gauzarik ederrenak ez dira". Txapelketa aurkeztutako film laburrek bi eta zortzi minutu artean izan beharko dituzte.

Lanak aurkezteko modu berezia hautatu dute txapelketaren antolatzaileek; izan ere, bideoak apirilaren 26an Gaztetxean egingo den filmen emanaldira eraman beharko dituzte sortzaileek USB memoria batean.*

2018KO GAZTE ASTEA

9 egun. Azpeitiko Gaztetxeak antolatutako aurtengo Gazte Astea inoiz baino luzeagoa izango da.

26 Hilaren 26 an. Laburmetrai txapelketa antolatu dute lehen aldiz, eta filmen emanaldia egun horretan izango da Gaztetxean.*



Iazko Gazte Astearen barruan, kalejira aldarrikatzailea egin zuten maiatzaren 1ean. **Erik Aznal**

BESTERIK

1 Errazkinekiko elkartasunez, manifestazioa Iñaki Errazkin Ingurumen diputatu ohiak eta Ainhoa Intxaurrendieta GHK-ko presidente ohiak Espainiako Kontu Auzitegian deklaratu beharko dute apirilaren 12an, erraustegia gelditzeagatik. Haiei elkartasuna adierazteko egingo dute manifestazioa.

Eguna. Apirilak 7 (zapatua).

Ordua. 18:30 **Tokia.**

Plazatik hasita.

Antolatzailea. Elkar-ekin.

2 'Ekaitzaren zipriztinak' lanaz aurkezpene

Miren Garate kazetari azpeitiarrak berak idatzitako kronika liburua aurkeztuko du.

Eguna. Apirilaren 25a (asteazkena). **Ordua.** 18:00

Tokia. Emakumeen Txokoa.

Antolatzailea. Emakumeen Txokoa.

3 XIV. Izarraizko Mendi Lasterketa

Bi ibilbide izango ditu probak: 10 kilometrokoa eta 25 kilometrokoa. Egunean bertan ere eman ahalko da lasterketarako izena.

Eguna. Apirilaren 29a (igandea). **Ordua.** 09:30

Tokia. Izarraizko Atean hasi eta Azkoitiko Plaza Berrian bukatu. **Antolatzailea.** Lagun Onak eta Anaitasuna mendi bazkunak.*

Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

Lagun liburudenda

Meza liburua ez zen inolako liburu alerik ez zegon gure etxean. Beno, antzekoak bai bazirela. Oroimeneko zuloan sakonduz *Método de Corte y Confección de Corte Paris - Academia de Agueda Otegui* izenburua zuten ale batzuek egoten ziren amaren jostundegikoak zirela eta. Baina, hala ere, ezin esan gurasoek fede ez ziotenik liburuei. Fede itsua zioten, ikasketen izenean erositako guztiak, eta gehiago, ordaintzen zizkidaten txintik atera gabe.

JMk eskolan agindu ziguten hura ez zuela erosiko, beste behin, lapurtu egingo zuela, erabaki zuen. Lagun liburudendara joan eta bertan harrapatuko zuen, eta ekintza estaltze lanak gure bizkar hartuko genituen. Bidezkoa, zen, zilegi zen, zuzena. Betebehar militantea zen Lagunen eta Laguni harrapatzea. haren jabe eta arduradunek ez baitziren abertzaleak.

Talde osoa joan ginen liburu apala artean murgil egitera. Bitartean JMk, alkandora eta gerriko, lepo bete zuen liburuz bere neurri handiko tabardo barrua, irakurtzera behartua, eta iritzira egoki iruditu eta eskura izan zituene beste guztiekin:

– ¡Jodé Ignacio! ¡Déjate ya de chascarri-
llear y estate al loro ícono!

Ateratakoan taldekideen artean banatu zuen bere harrapakin osoa JMk. Auskalo non eta zer den Peter Demetzen *Marx, Engels y los poetas* izan zen tokatu zitzaidan altxorren parte. Egun batzuetara, kontrol batean poltsa erregistratu zidatenean, ur txarrak hartu zizkion guardia zibilak liburuari, baina –siga– ez zen ausartu legezkoa zela zioen nire argudio ikaratiari buelta ematen.

Alde egin beharra

Hogeita hamar urte geroago, *Recordando la guerra. Diario de viaje de un refugiado español* Toribio Echevarriarena erosi nuen. Eskaparetean hautsitako kristal eta harri artetik atera nuen, pintura gorri orbandua, lurrean

|||||||ramon etxezarreta|||

|||Ahaztu nahi nuke erasoen
orduan alboko tabernetako
terrazetan kafea edo tragoa
hartzen zuenetako haren izena



isuritako odolaren tankeran zahartzen den kolore gorri.

Berrogeitaka urte geroago, Ezkerreko Euskal Errepublikaren aldeko dinamika itozteko “turismoa” eta “turistak” indarrez erabiltzea erabaki dutela. kanpaina berriak egin beharko dituztela, ez turista zigortzeko eta ez ongietorria emateko, baina bai betetzen duen funtzioaz jabetzeko idatzi du esker abertzaleko zuzendaritzako izen ezagun batek. Hau ilustratzeko auzotarren bilera bat aipatu zuen non zaharrek gazteei deskribatzen zieten hain aspaldikoa ere ez zen irudia. Nola arkupetan zeuden, inprenta txikia, liburudenda, aroztegia, zapatadenda, harategia, kakahuete eta patata frijitu denda eta abar.

Aipatutako liburudenda Lagun da, alde zaharretik, bizi ezinik, ez hain justu turismoaren erasopean, alde egin behar izan zuen bera. Ahaztu nahi nuke erasoen orduan alboko tabernetako terrazetan kafea edo tragoa hartzen zuenetako haren izena, plaza aldatuan falta den liburudendaren omenez.✱



Ramon Etxezarreta

|||HITZ GEZIDUNAK||||||||||||||||



	Etsai, aurkari	▼		Miatuz	▼	Emakume izena	▼	Zeanuriko	▼		Kuiak
	Katazuria			Josi		Ald., zango atal		501			
	►			▼		▼		▼			▼
	Jasoak	►									
	Intsektu mota										
Izena	▼	Orotariko	►	▼				Ba..., baneuka	►		
Deitura		garaiak						Erregai mota			
►		▼				Sutarako zur	►	▼			
						Sasoi					
Trebea, abila	►					Neurri	►	▼			
Basati						Momentua					
►				Afrikako estatua	►	▼					
				Gipuzkoan, zain							
Lotan	►			Zundaketa tresna	►	▼			Bokalik gabeko lekua	►	
Kristala, leiarra				Odolean daramagu					Kontso-nantea		
►			▼			Bi bokal, herri bat	►		Musika nota	►	▼
						Potasioa			Bokal mehea		Bokala
Emakume izena	►				▼			▼	Jainko egjotoarra	►	▼

* Abeslari azpeitiarra



|||SUDOKUA|||

			3		6			
	2			7		1	8	
	9	5		1		2		
8						6		
		3	5		4	8		
		2						1
		8		4		9	6	
	3	4		6			5	
			2		3			



|||UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK|||||||

|||JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Apirilak 25 (asteazkena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara |||IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1



2



|||LEHIAKETAREN ERANTZUNAK|||||||

1 BIZIKLETARAKO...

2 NOLAKOA DA?

|||BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

|||HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

|||SOLUZIOAK|||||||

HITZ GEZIDUNAK

A	R	●	I	R	A	K	I	H	A	N	●
●	A	L	●	A	E	●	A	R	I	E	B
K	T	●	A	D	N	U	Z	●	L	●	●
A	I	S	I	N	U	T	●	A	S	A	B
I	R	A	Z	I	●	A	O	I	A	I	●
R	U	G	E	●	A	D	I	S	A	B	●
U	N	●	R	O	K	O	R	O	●	M	●
K	A	I	K	I	A	R	E	●			
A	E	D	U	N	I	B	I	E			
●	Z	●	L	●	M	●	A	●			

SUDOKUA

8	1	4	3	5	2	7	6	9	6
2	5	7	6	9	8	4	3	1	5
3	6	9	1	4	7	8	5	2	8
1	6	3	7	8	6	2	4	5	1
7	2	8	4	5	9	3	1	6	7
5	7	1	3	2	6	4	5	1	9
6	3	2	8	1	4	5	6	7	4
4	8	1	5	7	6	9	2	3	8
9	4	8	1	3	2	6	5	7	9

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1 Patriarka

2 Dora pandora

|||UZTARRIAREN MARTXOKO LEHIAKETA|||||||

IRABAZLEA



Nekane Zubeldia
Uztarria Komunikazio Taldearen bazkidea da aldizkariko 203. lehiaketaren irabazlea. Kutxillourdaitegiak emandako produktu sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, lehiaketaren irabazlea Kutxilloren oparia eskuetan duela.

Kutxillo

Urdalazpikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpiko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

Pentsio duinak aldarri

Espainiako Gobernuak onartutako %0,25eko "igoera lotsagarria" gaitzesteko eta KPIaren neurriko igoera aldarrikatzeko hainbat elkarretaratze ari dira egiten herritarrek azken asteetan.  Erredakzioa

Duela aste batzuk hasita, dozenaka eta dozenaka lagun ari dira astez aste protestak egiten Azpeitiko plazan. Azpeitiko Jubilatuen eta Pentsiodunen plataformako kideek deitutako elkarretaratzeek erantzun oso ona izan dute; izan ere, ehundik gora lagun elkartu izan dira plazan, pentsio publiko duinak aldarrikatzeko.

Ez dituzte Azpeitian soilik egin kontzentrazioak, eta beste hainbat protestatara ere batu dira Azpeitiko jubilatuen eta pentsiodunenak. Izan ere, joan zen martxoaren 17an Hego Euskal Herriko lau hiriburuetak kaleak hartu zituzten 150.000 lagunek baino gehiagok. Espainiako Gobernuaren pentsio politikak salatzen dituzte protestak. Hain zuzen ere, KPI igoera aldarrikatu, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatu eta babes sozialeko sistema propio baten aldeko jarrera erakutsi zuten herritarrek manifestazio



Ehundik gora lagun elkartu ziren martxoaren 19an.  Maialen Etxaniz

jendetsu haietan. Zapatu hartako protesta hark izan du soka, azpeitiar hainbatek pentsio duinen aldeko ahotsa zabaltzen jarraitzeko xedez elkarretaratzeak egiten jarraitzen baitu.

Azpeitiko pentsiodunek joan zen otsailaren 19an egin zuten aurreneko elkarretaratzea, plazan. Haren ostean, astero kontzentrazioak egingo dituztela ira-

garri zuten, eta halaxe izan da: aurrerantzean ere, astelehenero egingo dituzte elkarretaratzeak, 12:00etatik aurrera, herriko plazan.

Aurtengorako Espainiako Gobernuak onartu duen %0,25eko "igoera lotsagarria" gaitzetsi eta KPIaren neurriko igoera aldarrikatzen jarraitzeko asmoa dute herriko pentsiodunek. 

EFEMERIDEAK

1695

Herriko agintariak aukeratzeko ordenantza berria onartu zuten.

1805

Elizak egokitzeke erabakia. Oñatz eta Elosiaga auzoetako elizak egokitzea erabaki zuten, eta apaizek zeuzkaten etxeak ere txukundu zituzten.

1925

Gasolindegia Perez Arregi plazan. Bixente Giberti Perez Arregi enparantzan gasolina hornitegia jartzeko baimena eman zioten, urtean 50 pezeta ordaintzearen trukean.

2013

Cuevas, Europako txapeldun. Asier Cuevas Azpeitiko bizilagunek 100 kilometroko Europako Txapelketa irabazi zuen Frantzian.

 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak. Herria historian zehar liburua.

 Egilea: Imanol Elias Odriozola.

 Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea. 



KIMU BAT
GARDEN



Animaliontzako denda berria

Gure etxeko lagun
iletsu, lumadun eta
ezkatadunentzako
eskaintza zabala!

Urrestilla bidea, z/g. AZPEITIA

Mindful eating

Azken aldian oso modan dago zerbait adierazteko ingelesezko hitzak edo esaldiak erabiltzea. Horietako bat dugu *mindful eating*, jateari arreta osoa ipintzea.

Jaterakoan ditugun distrazioiek –telefono, telebista, tablet...– mokadutxoaz gozatzea eragozten digute; modu inkontzientean jaten dugu. Begibistakoa da azken urteetan elikadura ohiturak asko aldatu direla, presaka eta estresatuta bizi garelako. Guzti horrek beste plano batean jarri du sukaldean aritzea; garrantzia galarazi dio eta azkar eta inkontzienteki jaten dugu behin eta berriz. Emozioak, bakardadea, antsietatea edo urduritasuna baretzeko ere, askotan jotzen dugu elikagaietara. Dena den, janariak sor dezakeen lasaitasuna denbora jakin batekoa izaten da, eta ondoren erru sentipena gehitzen zaio egonezinari.

Helburua da zer gose mota dugun indentifikatzea, benetako gosea edo gose emozionala. Horregatik da hain garrantzitsua arreta jartzea eta jaten dugunaren kontziente izatea.

Aztertu aurrean duzun janaria bost zentzumenekin. Lasai jan eta mokadu bakoitzean zentratu. Gazia, gozoa, mikatza, garratza... dastatu eta gozatu ahoan duzunarekin eta zer jaten ari zaren kontzienteago izango zara.

Gozatu!*



aitziber aizpururi

MARKOS RODRIGUEZ estanko arduraduna



1. Tabakoa: paketekoa ala biltzekoa?

Gazteek biltzekoa gehiago, hori da joera.

2. Erosleen adina...

Antzematen da gazteek gutxiago erretzen dutela.

3. Tabakoa ala zorizko jokoak?

Tabakoa ekartzen du erosle gehiago.

4. Gutunazalak eta zigiluak?

Jendeak uste duena baino gehiago saltzen dira: 15 egunean, 500 bat zigilu.

5. Maitasun gutunetarako ote?

Ez dut uste... Baina nik ez diet galdetzen.

6. Eta aldizkariak?

Ondo saltzen dira, batik bat txutxumutxuenak.

7. Eta nobela erromantikoak?

Oso gutxi.*

Mailo Oiarzabal

IRENE ALTUNA
LOIOLAKO
Loiola Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arona, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foni. Loiolako, 3 • Tel.: 459 488 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Alar
mertzeria
Loiolako Inazio Hiribidea, 9
Tel.: 688 81 87 78

ORDULARI
Jose de Arrese, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

uba
Kokatu/iza
Flakato
Iskariot
Sotabla
Gestioi lanak
Fleken administrazioak
Gestioi inmobiliarioak
Tel. 943 81 51 87 Fax: 943 81 52 44
Egurren bidea, 41 • 20730 AZPEITIA

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑO
MODA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrek) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talia 18:30 - 20:00
Jose Arrese bidea, 2
943 81 28 08
adibizkaria@gmail.com
Marraskia eta eskulanak

Japoniar azpeitiartua

Hogei urte daramatza Azpeitira etortzen Hiromi Yoshidak. Bertsolaritza eta pilota gustuko ditu japoniarrak. 📎📷 Ihintza Elustondo



Mundu osoan zenbat leku ote daude bisitatzeko? Bada, hala ere, Hiromi Yoshidak (Yuzawa, 1960) urtero leku bera aukeratzen du oporrak pasatzeko. “Ez naiz bidaiaria. Normalean, hona etortzen naiz, oso gutxitan joaten naiz beste lekuetara”. Hogei bat urte daramatza Azpeitira etortzen, eta duela gutxi izan da azkenekoz. Hila-bete eman du, beti bezala, Koldo Aldalurren eta Olatz Agirreren etxean. Japoniarra izanagatik, erdi azpeitiarra da dagoeneko.

Yuzawa izeneko herrian jaio zen Yoshida. Haren arabera, ez da oso herri handia. “40.000 biztanle inguru izango ditu. Hori Euskal Herrian herri handia da, baina han ez. Ez dago pisu askoko eraikinik, denak etxe in-

dependenteak dira. Eta, inguruan, arroza landatzeko zelai asko dago”. Unibertsitateko ikasketak egitera Tokiora joan zen, eta, egun, han bizi da, jaioterritik 500 bat kilometrora.

Ingeles Filologia ikasi zuen Yoshidak, eta ikasketa horiek amaitzean, master bat eta doktore tesia egin zituen, biak azpeitiar hizkerarekin lotuta. Egun, unibertsitateko irakaslea da Japonian: bi unibertsitatetan linguistika orokorra irakasten du, eta hirutan euskara –haietako batean euskal kultura ere bai–.

Unibertsitatean izan zuen lehen hartu-eman euskararekin. Ohikoa ez den hizkuntza bat ikastea erabaki zuen, eta Suzuko Tamura irakasleak euskara ikasteko talde bat osatzea proposatu zion; izan ere, hark ere ha-

rreman estua izan zuen euskararekin. Gustura joaten zen Yoshida eskola horietara, eta, pixkanaka euskara ikasi, eta Euskal Herrira etortzea erabaki zuen. Hala, Lazkaoko barne-tegian egin zuen denboraldi bat.

Astea barne-tegian pasatu arren, asteburuetan etxera joaten ziren bertako ikasleak, baina Yoshidak dio berak ez zuela etxerik. “Barne-tegiko zuzendariak esaten zidan nora joan, baina gehienak bere familiakoen etxeak izaten ziren”. Dena den, egun batean, barne-tegiko lagun batek, bere familia ezagutzera eraman zuen. Orduan ezagutu zituen Koldo eta Olatz, eta haien etxera joateko ohitura hartu zuen. Geroztik, urtero egiten die bisita. “Oso-oso harreman ona dut beraiekin. Ja e-

txekotzat hartzen naute, eta asko eskertzen diet. Nire ama harrituta gelditzen da hainbeste urtean horrela etxean hartzen nautelako. 'Zeinen jende jatorra', esaten dit'.

Kontu akademikoak eta beste

Japoniako unibertsitateetan, otsailetik martxora bitartean opor sasoia izaten dute, eta atsedenaldi hori aprobetxatu du Yoshidak Azpeitira etortzeko. Egun, euskararen inguruko ikerketak egiten jarraitzen du; zehazki, Azpeitiko euskararen inguruko ikerketa bat egiten ari da orain, eta egonaldia datu batzuk biltzeko baliatu du. Azpeitiar hizkeraren xehe-tasunak ederkari kontrolatzen ditu, baina batuz hitz egiten du. "Ez naiz ausartzen azpeitiarrez hitz egitera, hanka sartze galantak egingo nituzke eta. Kontrolatu egiten dut, baina hitz egin ez", dio barrez.

Kontu akademikoez gain, beste hainbat gauzatarako ere aprobetxatu du Yoshidak Azpeitian eman duen denbora. Lagunekin egon eta rakugo saioak antolatzen aritu da, besteak beste. "Euskal Herrian gauza asko ikasi dut, eta nik ere zerbait bueltan ekarri nahi nuen. Orduan, rakugoa ekartzea bururatu zitzaidan".

Edonork pentsa dezake hizkuntza pila bat hitz egiten dituela Yoshidak, baina dio hori ez dela horrela. "Hitz egin, hitz egin... japonieraz, euskaraz eta ingelesez hitz egiten dut. Gaztelaniaz askoz ere gutxiago, ez dudalako praktikatzeko, eta ingeleza ere nahikoa herdoilduta daukat". Beraz, esan daiteke euskararekin duela miresmen berezia japoniarrek.

Euskara eta Euskal Herria ez ezik, euskal kultura ere asko gustatzen zaio Yoshidari. Bertsolaritza iruditzen zaio Euskal Herriko "gauzarik bereziena": "Nik uste dut munduko beste lekuetan ez dagoela horrelakorik. Ahozko literatura eta kantatzeko ohitura edonon egongo da, baina hain zaila den tradizio-rik ez". Pilota ere asko gustatzen zaio: "Koldoren semea txikia zenean, askotan joaten ginen Frontoitxi partidak eta entrenamenduak ikustera, eta hortik dator nire afizioa". Euskal musika da atsegin duen beste gauzetako bat. "Baina ez ditut gaur egungo



1. Yoshida Japonian, beraren eta lagun batzuen txakurrekin. **2.** Japoniarra Azpeitiko rakugo kontalariekin. Ezkerretik eskuinera, Yoshida, Axen Escalada, Maider Ibarguren eta Arantzazu Maiz. **3.** Yoshida Aldalur-Agirre familiako kideekin eta lagunekin Azpeitiko Zelai Luze soziedadean.



taldeak ezagutzen, lehengoak gehiago jarraitzen ditut. Benito Lertxundi gustatzen zait gehien, eta Imanol ere bai".

Japoniako bizimodua

Senarrarekin eta bi txakurrekin bizi da Yoshida, eta bere egunerokoa nolakoa izan ohi den azaldu du: "07:00-7:30 aldera jaikitzen naiz. Gosaldu, etxea pixka bat txukundu eta txakurrak paseatzera ateratzen ditut. Txakurrak ahalik eta denbora gutxien egon daitezkeen bakarrik, arratsaldeetan joaten naiz lanera. Izan ere, senarra 07:00etan aterata eta 17:00etan-edo itzultzen da. Ni 12:00-13:00 ateratzen naiz, unibertsitatean bazkaltzen dut eta 19:00etan-edo bueltatzen naiz etxera. Itzultzean, dutxatu egiten naiz, guk gauean dutxatzeko edo bainatzeko ohitura baitugu, eta gero, afaldu egiten dugu".

Eguneroko zereginak tarteko, denbora libre gehiegirik ez duela dio. "Denbora asko pasatzen dut klaseak prestatzen, baita txakurrak zaintzen eta etxeko lanak egiten ere. Baina, denbora libre dudanean, lagunekin elkartzeko, afaltzeko edo bazkaltzeko. Beisbola ere gustatzen zait, eta senarrarekin urtean pare bat aldiz joaten naiz estadiora". Horrez gain, rakugoa ere asko gustatzen zaio, eta saio horiek ikustera ere joaten da.

Japoniarrek lan asko egiteko fama dute, eta Yoshidak ez du ukatu hori hala denik. "Egia da, baina gero eta kontzientzia handiagoa hartzen ari dira. Ari dira ohartzen oporrei garrantzia handiagoa eman behar zaiela, baina kostatzen ari zaie. Ordu estra asko sartzen dituzte...". Dena den, bere egoera hobea dela nabarmendu du. "Unibertsitatean askoz ere libreago ibiltzen gara".

Euskaldunek beti "oso ondo" hartu izan dutela nabarmendu du Yoshidak. "Oso jatorrak dira. Lotsati samarrak ere badira, baina erabakiren bat hartu behar dutenean hartu egiten dute". Euskaldunak eta japoniarrak horretan desberdintzen direla uste du. "Guri kostatu egiten zaigu erabakiak hartzea".

Urte askoan, esperientzia ugari pilatu du Yoshidak, eta harrigarria da Euskal Herriari nahiz euskarari dien maitasuna. Japoniara itzultzean, Skype bidez praktikatzeko du euskara, Internetez jarrai dezake bertsolaritza, Youtuben entzun musika... Egun, Internetari esker muga batzuk lausotu dira, baina badira hain gertu sentitu ezin diren beste gauza batzuk: lagunak. Horregatik, ez du asmorik urtean behin Azpeitira etortzeko ohitura galtzeko. Euskara zer den galdetuta, argi dio: "Bizitzan topatutako altxor bat. Zergatik da altxor bat? Horren bidez lagun asko egin ditudalako".*


Euskal Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel: 943 16 16 40
Larrialdia:
943 16 16 40
Ekain
ALBAILARI KLINIKA


ostadar optika
OPTICAR - OPTOMETRISTAS
Jose de Arce, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Iñaki Ocho, 28
Tel. 943-891445
AZKOITIA


Dien autoak bertan daramizkoekin
AIZPURU AUTOAK
MANTENIMIENTO
Tel: 943 81 23 59
Fax: 943 81 22 81
aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net
Arribas 17, 20730 AZPEITIA

III TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	0837 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	0254 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	8144 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	8900 17
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

III FARMAZIAK (APIRILA)

1-2-6-12-19-24-28-29
Arrieta (Azpeitia).
943-811274

10-17-21-22-27
Alberdi (Azpeitia).
943-815974

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Apirilaren 11n eta 25ean
izango dira hitzorduak
17:00etatik 21:00etara,
anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natul euskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	8165 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	8163 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

III ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 08:30-14:00 ||| Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** ||| Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste egunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** ||| Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 ||| Larunbata: 09:00-13:00 ||| Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

III ERABILGARRI



▲ EKOIZLEAK, PLAZAN.

Astearteetan ez ezik, asteazkenetan, ostegunetan, ostiraletan eta zapatu goizetan ere hainbat ekoizle izaten dira beren produktuak saltzen Azoka Plaza berrian.

4-9-14-15-20-26
Beristain (Azpeitia).
943-811949

GAUEZ, URTE OSOAN
Alberdi (Azpeitia).
943-815974

III GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

||| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

JOSE LUIS REY 'AMALAU'

Azoketako saltzailea

“Bi hilabetetan eskuetatik kendu zizkiguten guztiak”

Biologia ikasteko asmoa albo batera utzi eta azoketan saltzaile hasi zen. Etorkizun “lausoa” ikusten dio ofizioari.  A. Agirrezabala

Nolatan hasi zinen azokaz azoka arropa saltzen?

Nire amonaren aita, Tomas Arsuaga, hasi zen ganadu mantak, segak, marmitak, telak... saltzen azoketan duela 150 urte. Gero, belaunaldiz belaunaldi oinordetzan hartu dugu lanbidea. Biologia ikasi nahi nuen, baina uda batean lehengusu bati lagundu nion azokan, eta konturatu nintzen beste edozein lanbide-tan baino hamar aldiz gehiago irabazten zela honetan. Ikasketak utzi eta azokaz azoka hasi nintzen. Egia esan, biologia ikasi ez izanaren arantza betiko geratu zait.

Zer etorkizun du zuen lanbideak?

Urte oso-oso onak izan ditugu, merkataritza gunerik-eta ez zegoenean. Baina, egun, egoera bestelakoa da. Nire bi seme-alabek, behintzat, garbi dute ikasi egin nahi dutela.

Zein herritan izaten zarete saltzen?

Astearteetan Azpeitian izaten gara, asteazkenetan Ordizian, ostegunetan Markinan, ostiralean Leitzan, zapatuetan Zumarragan eta igandeetan feriaren bat non den, ba han. Eta salmentarako herririk onena Azpeitia da. Durango eta Tolosa ere merkatu onak dira.

Lumazko jaka termikoen salmentare-

kin pagotxa izan duzue aurtengo neguan, ezta?

Urrian hasi ginen saltzen, eta hasieran jendea ez zen fio, baina probatu zutenak harrituta geratu ziren. Gero, bi hilabetetan guztiak eskuetatik kendu zizkiguten. Eta dagoeneko zenbait bezerok datorren negurako ere eskatu dizkigu gordetzeko.

Zer ezaugarri ditu jakak?

Eroale termikoak eta aislanteak ditu, eta USB bidez poltsikoan gordetzen den bateria batera lotzen da. Hiru intentsitate aukera ditu: 52 gradu, 46 eta 38, eta garbigailuan garbitzen da. Zerbikalak, bizkaraldea, giltzurrun eta bular aldeak berotzen ditu. Asturiasen ekoizten dute eta 36 orduko autonomia du bateriak. Azoketan neu bakarrik ari naiz beroki hori saltzen, 81 eurotan. Dendetan 130 eurotik gora balio dute halako jakak.

Nork erosi dituzte jaka horiek?

Basomutilek, azoketako fruta saltzaileek, ehiztariek, iktusa emanda daudenek...

Datorren negurako berrikuntzarik bai?

Bai, txalekoak ere salduko ditugu. Bateria bidez funtzionatzen duten bota termikoak merkaturatzeko etengabe ari dira ikertzen.✱



1. Jose Luis Rey lumazko jaka termikoa soinean duela. 2. USB bidez bateria batera konektatzen da jaka, eta isolamendu termikoaren bidez berotu egiten da. 3. Reyk Azpeitiko azokan postua jartzen du asteartero.



Neidek planto

Ez dakit zer zuen Ibaik bu-
ruan, baina trajea jantzita joan zen hitzordura.
Bazkaria zen. Gabrielaren etxean. Aitzakia,
Gabrielaren lagun Neideren urtebetetzea:
50 urte. Dotore zihoan Ibai, esku batean boti-
la-ardo ondua; gazta eta magurdi tarta, bes-
tean. Joan zeneko, sukaldeko borrokan ari
zen Gabriela, pijama zahar bat jantzita, su eta
fu, eta etxean non edo non, barruko gelaren
batean, Neide, Gabrielaren lagun mina. Nei-
dek eta Ibaik ez zuten elkar ezagutzen, Ga-
brielak egin zituen bitartekariarenak. Hau
Neide, hau Ibai, bi muxu. Harrigarri ere
bazen, trajea jantzita Ibai, pijama zaharra jan-
tzita Gabriela, trajea jantzita Neide, baina la-
neko buzo urdina zuen traje Neidek! Lanetik
irten berria zen, fabrikan goizeko txanda
eginda, azkeneko aldiz. "Ordezkapen bat
egiten eduki naute eta, gaur, kontratua bu-
katzen zitzaidan egunean, bulegora hots
egin eta bi urteko kontratua sinatzeko papera
jarri didate mahai gainean. Baina nik ezetz, ez
dut nahi izan. Ez direla baldintzak. Abusu
hutsa dela. Ez paga estrarik ez beste, ezetz.
Krisia izan zenean, denok sufritu genuen. Go-
rriak ikusi nituen neuk ere. Baina, orain, dirua
mugitzen hasi denean, krisi garaiko baldin-
tzetan lanean segi? Utikan! Lana nahi dut,
baina lan duina!".

Ez Gabrielak ez nik ezagutzen dugu bi ur-
teko kontratuari uko egin dionik, Neide izan
ezik. Nagusiak langileari eman beharrean,
langileak eman dio andafuerako soinekoa na-
gusiari. "Ez nau kezkatzen. Langile saiatua
naiz, lan egitea gustatzen zait, ez lanean den-
bora pasa egotea. Egiten dudana gustatzen
zait: garbiketa lana. Bazkalondoan ere zilarra
baino garbiago utziko dut Gabrielaren suka-
ldea. Hala ere, kozinatzea ez eskatu niri, hu-
tsaren hurrengoa naiz-eta horretan. Inguratu-
ko dut bai, nik, garbiketa lana!". Ez du bide
erraza izan honaino. Duela hamar urte heldu
zen, Rio de Janeirotik, Italian zenbait lagun
bazituela, babestuko zutelakoan. Gasteizen



|||||||miel a. elustondo|||||

|||Ez Gabrielak ez nik
ezagutzen dugu bi urteko
kontratuari uko egin dionik,
Neide izan ezik

ere bai ezagunik, eta aldi bat egin zuen Ara-
ban. Italiara bidean, trenean, Frantzian non
edo non zela, hartu zuen poliziak. Pasaporte-
a eskatu, eta erretenu Neide! Poliziaren kaio-
lan eman zuen gau bat, harik eta atzera Es-
painiara bidean jarri zuten arte. Kataluniako
La Jonqueran utzi zuten. Ez libre, hala ere, po-
lizia batetik bestera, Espainiakoaren eskue-
tan utzi zuten.

"Lan duina dut"

"Poliziak ez ninduen txarki tratatu. Paper bat
egin zidan Gasteizera bakean itzul nendin, ez
nintzan beste polizia batek endredorik ekarri,
eta horrelaxe ailegatu nintzen! Eskerrak ema-
ten dizkiot orain zeruari, ez zidalako utzi Italia-
ra ailegatzen. Badakit zer lan klase nuen han
zain. Hemen, berriz, garbiketa-lanean jardun
dut, gustura, eta pozik, lan duina egin dut,
duin irabazi dut, oraintxe arte, pasatutako kri-
siaren aitzakian abusua egiten segitu nahi
dutenean. Eta horrela ez, horrela planto nik
ere, planto!".*



AGENDA



APIRILA

- 3** Erakusketa: ISLANDIA (Alex Berasategi). Apirilaren 3tik apirilaren 17ra arte, Sanagustin kulturgunean.
- 7-9** Zinea: GORRIÓN ROJO (helduak), UNA FAMILIA FELIZ (gaztetxoak), Soreasu Antzokia.
- 8** Dantza: MUTXIKOAK. Azpeitiko plazan (eguraldi txarra bada, Sanagustin kulturgunean). 12:00etan.
- 13** Hitzaldia: AZKOITIA-AZPEITIA MARATOI ERDIA 25 URTE. Alejandro Gomez eta Alberto Juzgadak hartuko dute parte. Soreasu Antzokian, 20:00etan.
- 13** Kontzertua: TREMENDA JAURIA + SKAKEITAN, Sanagustin kulturgunean, 23:00etan.
- 14-16** Zinea: SIN RODEOS (helduak), MAYA ERLEA (gaztetxoak), Soreasu Antzokia.
- 14** Dantza: AGORRILA (Gero Axular dantza taldea), Soreasu Antzokian, 19:00etan.
- 15** Kafe Naparra: ATXORROTXEKO GAZTELUA. Beni Agirrek emango du hitzaldia, 11:00etan, Sanagustin kulturgunean.
- 19** Kontzertua: GANBERA-MUSIKA (Alain eta Amets Sorazu, Itziar Beitia eta Ignacio Araquistain), Sanagustin kulturgunean, 19:30ean.
- 20** Kontzertua: PIANO ERREZITALDIA (Ignacio Araquistain), Sanagustin kulturgunean, 19:30ean.
- 20** Dokumentala: ELKARREKIN-TOGETHER. Angel Oiarbide bertan izango da, Soreasu Antzokian, 22:00etan.
- 21-23** Zinea: EL HILO INVISIBLE (helduak), EL PEQUEÑO VAMPIRO (gaztetxoak), Soreasu Antzokia.
- 21** Kontzertua: MICAH P. HINSON, Sanagustin kulturgunea, 23:00etan.
- 25** Hitzaldia: GARBINE ARANBURU, LABeko Idazkari Nagusia, Sanagustin kulturgunean, 19:00etan.
- 26** Hitzaldia: MIKEL REPARAZ, kazetaria eta ETBko albistegietako Nazioarte arloko burua, Sanagustin kulturgunean, 19:00etan.
- 28-30** Zinea: YO, TONIA, (helduak), PETER RABBIT (gaztetxoak), Soreasu Antzokia.

Gure
urteurrena
ospatzeko
20% deskontua
zuriketetan

AURREKONTUAK
APIRILAK 1etik
OTSAILAK 27 bitartean
egindako zuriketetan.

*Erraztasunak
ordainketan.

10
¡URTE!
OSPATZEN
DITUGU

Jose Artetxe kalea 5
(Anbulataria ondoan)
20730 Azpeitia

☎ 943 02 59 55

INNOVA
HORTZ KLINIKA

GRUPO
horzkari
hortz osasun klinika

Iberotarren plaza, 4 behea
Azpeitia
T. 943 81 50 52



TEKNOLOGIA BERRIAK ODONTOLOGIAN:
3D ESKANERRAREKIN EGINDAKO
DIAGNOSTIKO DIGITALAK